


# Egitaraua: Adingabeak eta Alkohola

# Egitaraua: Adingabeak eta Alkohola



PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2014

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren  
*Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:  
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

**Argitaraldia**

1.a, 2014ko uztaila

**Ale-kopurua**

3005 ale

©

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Osasun Saila

**Internet**

[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

**Argitaratzailea**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
C/ Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

**Egileak**

Osasun Saila - Osasun publikoaren eta adikzioen zuzendaritza

**Itzulpena**

MARAMARA

**Zuzendaritza, koordinazioa eta prestaketa**

Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza

**Diseinua eta maketazioa**

Susana Aguilera

**Imprimaketa**

Gertu

**Lege-gordailua**

SS 972 – 2014



# AURKIBIDEA

1. Sarrera	8
2. Alkohola eta osasuna	9
2.1. Ebidentzia	9
2.2. Alkoholaren kontsumoa, osasun publikoan arazo	10
2.3. Jokabide-ereduak	11
2.4. Adingabeak eta alkohola	12
3. Alkoholaren kontsumoa Euskadin 18 urtetik beherakoetan	15
4. Erakundeen erantzuna	25
4.1. Aurrekariak	25
4.2. Jardun-ildoak	25
4.2.1. Eskaintzaren kontrola	25
4.2.2. Prebentzioa	26
4.3. Araudia	29
4.3.1. 18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa	29
4.3.2. 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko antolamendu sanitarioarena	30
4.3.3. 7/1982 Legea, ekainaren 30ekoa, Eskola Osasunari buruzkoa	30
4.3.4. 4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa, ikuskizun publikoei eta jolas-jarduerei buruzkoa	30
4.3.5. Udal-ordenantzak	30
4.4. Plangintza	31
4.4.1. Osasun Plana, 2013-2020. Osasuna, pertsonen eskubidea, guztion ardura. Euskadirako Osasun Politikak	31
4.4.2. 2011-2015eko Euskal Autonomia Erkidegoko Mendekotasunen VI. Plana	31
4.4.3. Euskadiko III. Gazte Plana, 2020	32

5. Gure inguruneko erreferentziak	33
5.1. Osasunaren Mundu Erakundea	33
5.1.1. Stockholm-eko Adierazpena (Gazteak eta alkohola, 2001)	33
5.1.2. Munduko Estrategia alkoholaren erabilera kaltegarria murrizteko	33
5.1.3. Europako Ekintza Plana, alkoholaren kontsumo kaltegarria murrizteko, 2012-2020	34
5.2. Europar Batasuna	34
5.2.1. Europar Batasunaren erkidego-estrategia alkoholarekin lotutako kalteak murrizten laguntzeko estatu kideei. Europako Batzordearen 2006ko urriaren 24ko komunikatua.	34
5.2.2. Kontseilu Europarraren 2001eko ekainaren 5eko Gomendioa gazteek, eta, bereziki, haurrek eta nerabeek alkohola kontsumitzeari buruz.	35
5.3. Estatu Espainola	36
5.3.1. Drogei buruzko estrategia nazionala, 2009-2016	36
5.3.2. Legeria	36
6. Adingabeak eta Alkohola deituriko programaren helburuak	38
7. Garapena, koordinazioa eta jarraipena	41
8. Garatu beharreko ekintzak	43
ERANSKINAK	50
1. Eranskina. Parte-hartzaileak eta erabilitako prozesu metodologikoa	50
2. Eranskina. Lantaldeen proposamenak eta gomendioak	55

# 1. SARRERA

Pertsona helburutzat hartuz gero, gure Jaurlaritza-ekintzaren funtsezko ardatza da eta, ahalegin sendo eta irmoa egin behar da euskal herritarrok gozatzen dugun ongizate-estatua bermatzeko, neke askorekin eraiki dugu-eta guztion artean. Sinetsita gaude, gainera, konpromiso eta ahalegin horrek zerikusi handia duela herritarren osasuna eta bizi-kalitatea sustatzearekin, gure gizarteko agente eta sektore guztien parte-hartzearen eta lankidetzaren bitartez.

Ildo horretatik, 2013-2020 aldirako Osasun Plana, orain dela hilabete batzuk onartua, garrantzizko oinarria da gure osasun-zerbitzuen lanerako, eta hainbat neurri garatzen ditu bere goiburua egia bihurtzeko: “Osasuna, pertsonen eskubidea, guztion ardura”. Plan horren lehentasunezko arloetako bat haurren eta gazteen osasuna da. Izan ere, gazteenei, haien osasunari eta osasun-arazoei arreta ematea dugu Eusko Jaurlaritzaren helburuetako bat. Nerabearoa, adoleszentzia, garai oso-oso inportantea da bizitzan; izan ere, pertsonen nortasuna eraikitzen da bertan, eta heldutasun biologiko, psikologiko eta soziala ontzen. Eta, gainera, adin horri dagozkion ezaugarriengatik hain zuzen, nerabeek erraztasun handiagoak dituzte jokabide edo portaera arriskutsuak izateko.

Gazteen osasunari eragiteko moduko arrisku-portaera horien artean dugu, zalantzarik gabe, alkohola hartzea. Nabarmen lotzen zaio aisialdiari eta talde-giroari, lagunarteari, eta ondorio larriak izan ditzake osasunean eta ongizatean, bai berehala, bai epe luzera. Nerabeek ez dute alkohola helduek bezala kontsumitzen, eta, ondorioz, berezitasun hori hartu behar da kontuan gai horri heltzeko.

8

Horregatik, Eusko Jaurlaritzak, adingabeek alkohola kontsumitzen dutela ikusita, premiazkotzat jotzen du esku hartzea, eta alor honetako ekintza instituzionala areagotzea. Horiek horrela, sektoreen arteko estrategia bateratu bati heldu diogu Adingabeak eta Alkohola programa honen bitartez; egin-eginean ere, legegintzaldi honetan jorratzeko ekintzak eta neurriak proposatu eta egituratzen ditu programa horrek, alor komunitarioan, hezkuntzan edo osasunean garatzeko. Eta hori guztia, bete-betean bat eginda euskal erakundeek, hirugarren sektorearekin elkarlanean, aspalditik hasita daukaten prebentzio- eta interbentzio-lanarekin, adikzio-planen barruan.

Kultura-aldaketa bultzatu nahi dugu, gazte-gazterik hasten dira-eta substantzia hori hartzen —gure gizartean guztiz errotuta eta presente dagoelako—, eta gazteen artean ohitura osasungarriak sustatu, eguneroko bizitzan balia ditzaten. Hori guztia, azken helburutzat hartuta adingabeek alkoholik ez hartzea, eta alkohola kontsumitzen has-teko adina ahalik eta gehien atzeratzea, bat etorrita Munduko Osasun Erakundearen gomendioekin. Izan ere, erakunde horrek oraintsu argitaratu duen 2014ko mundu-txostenak ohartarazpen garbia egin du substantzia honek dakartzan arriskuei buruz.

Desafio hori dugu aurrean, eta honela ekingo diogu: guztiz sinetsita kultura-aldaketa bultzatzeko lana egin behar dugula, hezkuntzatik eta prebentzio-programetatik, denak koordinatuta eta batera.

*Iñigo Urkullu Renteria*  
Lehendakaria

## 2. ALKOHOLA ETA OSASUNA

Alkohola drogatzat hartzen den substantzia da, hura kontsumitzeak organismoan eragin ditzakeen aldaketengatik (fisikoak eta burukoak), eta, gainera, mendetasuna eta tolerantzia eragin ditzakeelako; gainera, haren erabilera kaltegarria gaixotasun ez-transmitigarriak prebenitzeko eta kontrolatzeko munduko estrategiaren Ekintza Planean nabarmentzen diren lau arrisku-faktore nagusietako bat da (WHA61.14 ebazpena).

Arrisku horiek areagotu egiten dira alkoholaz abusatzen dutenak edo kontsumo problematikoak dituztenak nerabeak direnean.

Adingabeek alkohola kontsumitzeak berehalako ondorioak izan ditzake, eta, gainera, larriak, baita ondorio kaltegarriak ere epe luzean, hala nola alkoholarekiko adikzio kronikoa.

Nerabeen garuna bereziki ahula da alkoholaren ondorioen aurrean. Azken urte hauetan, azterlan zientifiko askok egiaztatzen dute lotuta daudela nerabeen alkohol-kontsumoa eta kalte zerebrala.

Heldutasun psikologikoa ez izateak –nerabezaroan berezkoa– zaildu egiten du alkoholaren kontsumoak eragiten dituen sentazio eta ondorio asko maneiatzea. Murriztu egiten dira arreta, erreakzionatzeko gaitasuna eta denbora, eta zaildu egiten du erabakiak hartzea.

Hortaz, nerabeek alkohola kontsumitzeak haien osotasun fisikoa eta psikikoa arriskuan jartzen du, eta, gainera, agresibitatearekin, istripu-tasarekin, sexualitatearekin eta osasun publikoarekin lotutako jokabide arriskutsuekin lotzen da.

9

### 2.1. Ebidentzia

Munduan, alkoholaren kontsumoak heriotza goiztiarraren ondorioz galdutako urteen % 4 inguru azaltzen ditu; horrek esan nahi du kopuru hori HIESAk edo tuberkulosiak eragindako heriotza kopurua baino handiagoa dela (World Health Organization. Global status report on alcohol and health. Switzerland: World Health Organization 2011).

Edari alkoholdunak nerabezaroan kontsumitzen hasten direnek aukera handiagoa dute alkoholaren gehiegizko kontsumoaren ondorioak pairatzeko helduarora iristen direnean; ondorio horien artean, alkoholismoa garatzeko edo alkoholarekiko mendekotasuna izateko arriskua daude (Guía clínica sobre el alcohol de Socidrogalcohol - Alkoholari, Alkoholismoari eta Bestelako Toxikomaniei buruzko Azterketen Espainiako Sozietate Zientifikoa).

Alkohola osasunarentzako hirugarren arrisku-faktore (gaixotasunak agertzeko nahiz heriotza goiztiarrerako) garrantzitsuena da, tabako-kontsumoaren eta arteria-hipertentsioaren ondoren. Osasunarentzako arrisku-faktore gisa, diabetesa baino 3 aldiz garrantzitsuagoa da, eta asma baino 5 aldiz garrantzitsuagoa (Anderson eta Baumberg, 2006).

Alkoholak, gainera, buru-nahasmenduak eragin diezazkieke (depresioa, antsietatea, ezegonkortasun emozionala, loaren nahastea, eta abar) alkoholaren mendetasunaren ondorioz nahasmenduren bat duten pertsonen ez ezik, alkohol gehiegi kontsumitzen dutenei (World Health Report, 2002).

Alkohol gehiegi kontsumitzeak 60 gaixotasun desberdin eragin edo gaizkiagotu ditzake, eta, gainera, familia- eta genero-indarkeriaren gertakarien nahiz lan- eta zirkulazio-istripuen faktore erabakigarria da.



Hori adierazten dute National Institute on Alcohol Abuse and Alcoholism. National Institutes of Health erakundeak. U.S. Department of Health and Human Services. (Alcohol's effects on the body, <http://www.niaaa.nih.gov/alcohol-health/alphabets-effects-body>) eta NICE erakundeak Public health guidance 24. Alcohol-use disorders: preventing harmful drinking gidan (<http://guidance.nice.org.uk/ph24>).

Azken aipamen horretatik gai honi buruzko ebidentzien zerrenda bat atera da:

10

- Lotura garbia dago alkoholaren tasen/prezioaren igoeraren eta alkoholaren eskaera murriztearen artean.
- Nabarmen samar ikusten da edale gazteek eta edale konpulsiboek ((binge drinking) nahiago dituztela edari merkeenak.
- Egiaztatu da alkoholaren prezioaren igoeraren eta alkohol-kontsumoak eragindako kalteak murriztearen artean lotura dagoela. Alkoholaren prezioa jaisteak laguntzen du alkoholarekin lotutako heriotzak areagotzen, bereziki arrazoi kronikoen ondoriozko heriotzak, hala nola gaixotasun alkoholiko hepatikoa. Horren eraginpean dauden taldeak, bereziki, adinekoak, langabeak eta hezkuntza-maila, gizarte-maila eta diru-sarrera txikiak dituztenak dira.
- Nabarmena da alkohola zerbitzatzen duten langileak ez daudela ados adingabeei alkohola zerbitzatzearekin, eta bat datoz adina kontrolatzeko mekanismoak garatzearekin, adina modu elektronikoan egiaztatzen duten tresnak jarritz.
- Lotura bat dago alkoholaren salmenta-puntu kopurua igotzearen eta alkoholaren kontsumoa igotzearen artean, baita gazteen artean ere.
- Azterketa sistematiko baten ondorioz ikusi zen alkoholaren iragarkiaren/sustapenaren/publizitatearen eta alkohola nerabezaroan kontsumitzen hastearen artean lotura zegoela, eta hori ere lotuta zegoela alkoholaren kontsumoa igotzearekin alkohola kontsumitzen zuten nerabeen kasuan.
- Ebidentzia bat dago kontsumo-puntuan alkoholari buruzko publizitatea egitearen eta alkoholaren kontsumoak adingabeen, binge drinker deiturikoen eta ohiko edaleen artean dituen ondorioen artean.
- Kanpoko publizitateak nahiz hedabideetako publizitateak igo egin dezakete nerabeak alkohola kontsumitzen hasteko aukera, eta gazteek kontsumitzen duten kantitatean eta maiztasunean eragin dezakete.

## 2.2. Alkoholaren kontsumoa, osasun publikoan arazo

Edari alkoholodunen gehiegizko kontsumoa osasun publikoaren arazo nagusietako bat da gizarte industrializatuetan. Are gehiago, adin goiztiarrean hasitako adingabeen kontsumoaz, alkohola neurritz gain edateaz (batez ere asteburuetan) eta ondoren abstinentziako aldiez eta mozkorraldien maiztasuna igotzeaz hitz egiten badugu.

Osasunaren Mundu Erakundearen ustez, pertsonen osasun fisikorako, psikikorako eta sozialerako arriskutsuena izan daitekeen droga da alkohola, beste hainbat substantziaren gainetik, esate baterako, kokainaren, bizigarri sintetikoen, haluzinogenoen edo kanabisaren deribatuen gainetik.

Euskal kulturaren, edari alkohol-dunen kontsumoa errotuta dago historikoki, eta onartuta dago gizartearen. Etxe askotan kontsumitzen dira edari mota horiek noizean behin edo normalean, eta haur eta nerabe askok normaltzat hartzen dute. Hortaz, edari alkohol-dunak oso onartuta daude, eta haien presentzia eta eskuragarritasuna oso handia da gure gizartearen.

Edari alkohol-dunen erabilera merkataritzaren, publizitatearen eta hedabideen bitartez ez ezik, gizartearen ohitura eta azturen bitartez ere sustatzen da. Horrez gain, haurrak eta nerabeak ere xede-biztanleria dira edari alkohol-dunen fabrikatzaileentzat, etorkizuneko helduak direlako.

Edari alkohol-dunak janari-produktutzat hartzen dira eta oso hedatuta daude gure Herrian. Dietaren barruan erabiltzen dira, baina baita elikaduratik kanpo ere, eta intentsitate handiagoz, ospakizun sozial batzuetan, eta ospakizun horietan ia ezinbestekotzat hartzen da edari alkohol-dunak edatea.

Hainbat edari alkohol-dunen produkzioak, esate baterako, ardoarenak, sagardoarenak edo txakoliarenak, leku garrantzitsua du gure ekonomian, bai nekazaritzaren eta industriaren sektoreetan, baita barneko eta kanpoko merkataritzan ere.

Edari alkohol-dunak errotzeak, onartzeak eta horien garrantzi ekonomikoak ekar dezake edari alkohol-dunen kontsumoari lotutako arriskuak gutxiatea edo saihestea askotan, eta zenbaitetan fribolizatu ere egiten dira.

### 2.3. Jokabide-ereduak

Azken urte hauetan aldatu egin dira alkohol-kontsumoaren ereduak, eta ikusten da gero eta goizago hasten direla kontsumitzen eta modu intentsiboagoan. 80ko hamarkadaren amaieran eta 90eko hamarkadaren erdialdean, ordura arte ezezaguna zen alkohol-kontsumo modu bat ezarri eta finkatu zen, eta edari alkohol-dunak edatea eta intoxikazio etilikoa helburu bihurtu ziren, ondo pasatzearen, modernitatearen eta ausardiaren adierazgarri gisa. Nerabeen eta gazteen arteko harreman pertsonaletan alkohola ezinbestekoa eta derrigorrezkoa den zerbait da.

Gazteak giroa dagoen eta tabernetako betiko eremuetan biltzen dira, eta ingurune espazio publikoetan (kaleak, parkeak, plazak eta abar) biltzeko lekuak bilatzen dituzte, lagun taldeekin eta beste talde batzuekin harremanetan egoteko, eta helduen begiradetatik eta kontroletik ihes egiteko lekuetan, hain zuzen ere.

Horrez gain, alkohola kontsumitzen den beste leku batzuk agertu dira, bide publikoa ez direnak, aisialdiarekin, gazteen arteko harreman sozialekin eta asteburuetan gertatzen den berdinen arteko elkarrekintzarekin lotzen direnak: lonjak, jaialdiak edo kulturalekitaldiak, kontzertuak... Izan ere, lonjak deiturikoen eta erabilera pribatuko lokalen erabilera hedatu eta jendarteratu da. Gazte taldeek lonja eta lokal horiek erabiltzen dituzte beren aisialdian, beste erreferentziagune bat bezala eta taldearekin edo kuadrilarekin sozializatzeko.

Alkohola adingabeek gehien erabiltzen duten substantzia da; nolahi ere, nerabeek normalean ez dute alkoholik edaten beren etxean, baizik eta beren lagunekin, aisialdian. Aste barruko kontsumo-mailek joera egonkorra dute azken urte hauetan, baina kontsumo intentsiboak (asteburuetako mozkorraldiak edo intoxikazio etilikoak eta “binge drinking-a” edo betekadetan oinarritutako kontsumoa) igo egin dira.

Hortaz, esan dezakegu alkoholaren “jolas-kontsumoa” dagoela, orain dela hamarkada batzuetatik aurrera finkatzen ari den joera, eta joera horren bitartez substantzia horren kontsumoa normalizatu nahi da gazteen astialdiaren eta izaera sozialaren egituratzaile gisa.

Horri gehitu behar zaio alkohol-kontsumoari lotutako arriskuaren pertzepzioa txikia dela. Gazteen alkohol-kontsumoaren egungo eredu horiek ez dira soilik Euskadikoak; Europa osoan homogeneizatzeko joera gertatzen ari da.

## 2.4. Adingabeak eta alkohola

Nerabearoa pertsonaren garapeneko fase bat da, non nerabea bere inguruan duen mundua ezagutzen hasten den, mundu horretako alderdi asko onartuz eta beste batzuk kritikatu eta haien aurka joz. Gaztaro osoan luzatzen den ikasteko aldi horretan, pertsona bere nortasuna eratzten doa, bere inguruan ikusten dituen portaerak eta jarrerak bere egiten dituen bitartean, baina horren ondorioz, askotan arriskuak hartzen ditu gizartean ezarritako ohiturak eta jokabide-ereduak esperimintatzeko, probatzeko eta barneratzeko. Horixe da nerabeak bere ingurunera egokitzeko, heltzeko, hobetzeko eta pertsona gisa eboluzionatzeko duen modua, ezarritako jokabide-ereduak oinarritzat hartuta esperientzia hartuz, baina nerabeak, azkenean, baztertu, onartu edo aldatu ditzake jokabide-eredu horiek. Etengabeko esperimintatze eta ikaste horretan ere probatzen dira, beste gauza asko bezala, drogak. Oro har, bizitzaren aldi horretan, hasierako fase horretan, substantzia arrunt eta ohikoekin hasten dira.

Nerabearoa bizitzaren aldi garrantzitsu bat da, eta ezaugarri nagusiak gizabanakoak helduaroan sartzeko prozesuan dituen aldaketak eta asaldurak dira. Aldaketa horiek hainbat alderditan gertatzen dira: aldaketa fisikoak, hormonalak eta haztekoak, baina baita aldaketa psikologikoak, afektiboak, harremanen alorrekoak eta pertsona eraikitzeak ere; etapa horretan autonomiaren eta helduen munduarekiko hurbiltze kritikoaren prozesuak landuko dira.

12

Aldaketak ematen dira nerabea bizi den erreferentzia-taldeetan ere, eta bereziki, familiar eta berdinen taldeetan. Talde horiek ikusle izateaz gain, agente aktibo dira prozesu honetan.

Igarotze erritual horiek aldaketa horiek bistaratzen dituzte. Gizarte guztiek, beren historian zehar, erritual jakin batzuk erabili dituzte, modu kontzientean eta onartuan gutxi gorabehera, bizitzaren etapa batetik besterako igarotzea irudikatzeko.

Gaur egun, substantzien kontsumoa igarotzearen erritual horietako bat da nerabe askorentzat. Zenbait egilek esaten dute mozkortzea nerabeen aisiarako eta ondo pasatzeko erritualen zati bat dela asteburuan (Javier Pons Diez eta Enrique Berjano Peirats, 1999).

Alkoholaren edo beste edozein drogaren kontsumo "normalizatutzat" hartzen dugunetik aldendu daitekeen jokabidea dakarten arrisku-faktoreak asko dira, eta era askotakoak, gainera. Arrisku-faktore horiek pertsonaren berezko ezaugarriekin, pertsona horrek modu batera edo bestera jokatzeko duen aurrejoerarekin (modu oldarkorrean edo ez-oldarkorrean jokatzeko, adibidez), pertsona horren autoestimua-mailarekin eta gaitasunarekin, bere buruaz duen iritziarekin eta abarrekin lotuta daude. Pertsona horrek bere hurbileneko ingurunearekin eta ingurune horrekin, bere berdinekin eta lagunekin, hezkuntza-eremuan, familiarekin eta abarrekin ezartzen dituen elkarrekintzen esparruarekin ere lotuta daude. Era berean, pertsonaren ingurune sozialarekin, dagokion pertsona bizi den gizarte-esparruarekin, pertsona horrek duen gizarte-mailarekin, kontsumorako duen irisgarritasunarekin, gizarte-ingurune horretan ezarritako ohiturekin, azturekin eta sinesmenekin lotuta daude (gizabanakoaren jokabideari eragiten dietenak eta alkohol-kontsumoaren aurrean beste substantzia batzuen kontsumoaren aurrean ez den jarrera izatea; izan ere, substantzia horien kontsumoaren aurrean dagoen jarrera ez da hain tolerantia).

Hainbat datu nabarmendu behar dira (Euskadi eta Drogak, 2012 inkestatik ateratakoak), datu horiei esker hobeto jakin baitaiteke zer harreman dagoen nerabeen eta alkoholaren artean:

- Adin goiztiarrean hasten dira alkohola kontsumitzen, eta nerabearora sartzeko aldi gertatzen da. Kontsumorako jautzia 16-18 urte dituztenean gertatzen da; adin-tarte horretan gazteen ia % 80k kontsumitzen baitu eta kontsumoari eutsi egiten dio. Bilakaeraren ikuspegitik begiratuta, alkohola kontsumitzen hasteko adina zertxobait lehenago hasten da, eta, horrekin, arrisku guztiak hasten dira.
- 10 ikasletatik 8 alkohola probatuta iristen da adin-nagusitasunera. 14-15 urteko ikasleen erdiek kontsumitzen dute alkohola.
- Gizonen artean, kontsumitzen hasteko batez besteko adina (15,8 urte) emakumeena baino lehenagokoa da (17,1 urte).
- Nesken kasuan, alkohol-kontsumoaren nagusitasunak mutilenera hurbiltzeko joera du. Datu hori ez dator bat zaharragoak diren pertsonekin gertatzen denarekin; izan ere, kasu horretan gizonen alkohol-kontsumoa handiagoa da tradizionalki.

Bestalde, Drogak eta Eskola, 2012 inkestan ere ikusten da datu interesgarri bat:

Alkohola probatu dutenen artean, alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adina 13,2 urte da garagarroaren kontsumoaren kasuan, 13,39 ardoaren kasuan, 13,6 likorearen kasuan, eta lehenengo mozkorraldia 14,1 urte inguru izatean gertatzen da.

Adingabeek alkohola kontsumitzeari dagokionez, kontsumitzeko moduak eta arrazoiek pizten dute kezka bereziki. Elzo, Laespada eta Pallarés egileak (Más allá del botellón. Análisis socioantropológico del consumo de alcohol en los adolescentes y jóvenes. 2003. Madrilgo Erkidegoko Drogaren aurkako Agentzia) honela mintzo dira 80ko hamarkadatik aurrera hedatu zen «alkohol-kontsumoaren gazteen ereduari» buruz:

- Berezko helburu bihurtu da, ez beste jarduera sozial edo gastronomiko baten osagarri. Intoxikazio etilikoa bilatzen da berezko helburu gisa.
- Gazteen nortasuna (helduekiko harremanetik bereizita dagoena) bideratzen duen elementu bihurtu da.

Horri gehitu behar zaio alkoholaren kontsumoa handia dela gazteen artean alkoholari egozten dioten arriskuaren pertzepzioa txikia delako eta substantzia erraz lortzen dutelako.

Megías Valenzuela et al. («Adolescentes ante el alcohol: la mirada de padres y madres», 2007. “La Caixa” Fundazioaren Gizarte Ekintza. Colección Estudios Sociales. [www.laCaixa.es/ObraSocial](http://www.laCaixa.es/ObraSocial).) egileek alkoholaren kontsumo tradizionalaren edo helduen alkohol-kontsumoaren ereduaren eta gazteen alkohol-kontsumoaren artean dauden aldeak identifikatu dituzte:

<b>ALKOHOL KONTSUMOAREN EREDU TRADIZIONALA</b>	<b>ALKOHOL KONTSUMOAREN GAZTEEN EREDUA</b>
Astegun zurian	Asteburuan
Otorduekin batera	Otorduetatik kanpo
Energia emateko lanean	Aisiarekin lotuta
Jaietan eta ospakizunetan	la asteburu guztietan
Gizarte-harremanen lagungarri gisa	Gizarte-harremanen aitzakia gisa
Helduek gazteak bultzatzen dituzte kontsumitzen hastera	Gazteak beren kabuz hasten dira
Leku mistoetan	Leku espezializatuetan


### 3. ALKOHOLAREN KONTSUMOA EUSKADIN 18 URTETIK BEHERAKOETAN

Euskadi eta Drogak 2012, Euskal Autonomia Erkidegoko Osasunari buruzko Inkesta –(EAEIOI), 2013 eta Drogak eta Eskola, 2012 inkestetatik lortutako informaziotik ondoren aipatuko diren datuak nabarmendu behar dira. Datu horiek baliagarriak izango dira dauden joera garrantzitsuenak ikusteko.

- Alkohola kontsumitzen hasteko adina azken hamarkada honetan zertxobait atzeratu da, 15-18 urteko biztanleriaren kasuan.
- Kontsumoaren prebalentziak behera egin du 2006. urteaz geroztik, eta mailarik txikienetan dago 2000. urtetik aurrera.
- Kontsumoaren maiztasuna kontuan hartzen badugu, esan dezakegu batez ere asteburuetan kontsumitzen dela, eta adingabeen heren batek gehiegi edaten duela asteburuetan.
- Adin-tarte horretan, kontsumo intentsiboak zerbait murriztu dira.
- Lonjen eta diskoteken (15-18 urteko biztanleriak alkohola kontsumitzen duen lekuak dira) pisu erlatiboak gora egin du tabernetan eta kalean egingako kontsumoaren pisuarekin alderatzen badugu.

15


*15-18 urteko euskal gazteen banaketaren bilakaera alkohola kontsumitzen hasteko adinaren arabera (2000-2012)*



Iturria: Euskadi eta Drogak 2012.


15-18 urteko adin-tarteari dagokionez, 15 urterekin edo gutxiagorekin alkohola kontsumitzen hasten diren gazteen proportzioa % 40,5 izatetik % 28,5 izatera igaro da 2000. urtetik 2012. urtera. Aitzitik, beren kontsumoak 16 urterekin hasten dituztenen proportzioa igo egin da hamar urte hauetan, % 3,8 izatetik % 16 izatera igaro baitira.

**15-18 urteko euskal gazteak alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera (1996-2012).**



Azken hamarkada honetan beren kontsumoak 15 urterekin edo gutxiagorekin hasten dituzten gazteen proportzioa txikiagoa izateak eragin du kontsumitzen hasteko batez besteko adina 14,8 urteetara atzeratzea, nahiz eta 2000. urtean 14,1 urteetara aurreratu zen.


**Hasteko adina 15-24 urteko biztanleriaren kasuan.**



15-24 urteko adin-tarteari dagokionez, alkohola kontsumitzen lehenago hasten diren neska gehiago daude. Izan ere, nesken % 51 15 urterekin edo gutxiagorekin hasten da; mutilen kopurua, aldiz, % 41,2 da.

Batez ere “Euskadi eta Drogak 2012” inkestatik lortutako datu horiek “Euskal Osasun Inkesta 2013” deituriko inkestatik lortutakoekin alderatzen baditugu, ikus dezakegu joera dela alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adina egonkorra izatea denboran 15-18 urtekoen kasuan. “Euskadi eta Drogak 2012” inkestarekin alderatuta, 2013ko Euskal Osasun Inkestak zertxobait atzeratzen du alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adina, 14,8 urte lehenengo inkestan eta 15,8 bigarreanean, baina gutxi gorabehera 1,4 urteko desbiderapen estandarrarekin, hau da, Euskal Osasun Inkestaren arabera, alkohola kontsumitzen hasteko adinen barietatea 14,4 urteen edo 17,2 urteen arteko adin-tarteetan dago.

*Edaten hasi ziren batez besteko adinaren banaketa 15-18 urteko edale ohikoen kasuan.*



17


*Iturria: EAEOI 2013*

Nolanahi ere, esan daiteke 15-18 urteko biztanleriaren artean alkohol-kontsumoaren batez besteko adina egonkorra dela, eta adina atzeratzeko joera oso txikia dela. Egoera hori bi inkestetan azaltzen da.

Baieztape hori kontuan hartuta, esan behar da, EAEOI inkestaren arabera, 15-18 urtekoen % 75 16 urterekin hasi dela edaten, eta % 25 hamabostekin; neskek atzeratu egin dute edaten hasteko adina, baina mutilek ez; nesken kasuan 1997an 15,7 urterekin hasten ziren, 2013an, aldiz, 16,1ekin; mutilak, aldiz, 15,6 urterekin hasten ziren 1997an, eta 2013an 15,5 urterekin; eta hori nahiz eta, arestian esan dugunez, “Euskadi eta Drogak” inkestan adierazi nesken % 51 15 urterekin edo gutxiagorekin hasten dela kontsumitzen, eta mutilen kasuan % 41,2 hasten dela.



**Alkohol-kontsumoaren prebalentzia experimentalaren (azkena, egungoa eta egunerokoa) tasen bilakaera 15-18 urteko euskal gazteen artean (1998-2012).**




Iturria: Euskadi eta Drogak 2012.

Kontsumoaren prebalentziari dagokionez, esan daiteke, adierazle guztietan, kontsumo experimental (azkena, egungoa edo egunero) egiten duten gazteen proportzioa jaisten ari dela 2000. urteaz geroztik. Izan ere, azken hilabeteetan alkohola kontsumitu dutela esaten dutenak % 73 izatetik % 53,5 izatera igaro dira 2004. urteaz geroztik, eta antzeko jaitsierak ikusten dira azken urtean kontsumitu dutela edo beren bizitzan gutxienez behin kontsumitu dutela esaten dutenen kasuan.

18


**Alkohol-kontsumoaren maiztasunaren banaketa 15-18 urtekoetan.**



Iturria: EAEIOI 2013

“Euskal Autonomia Erkidegoko Osasunari buruzko Inkestan –EAEOI- 2013” berresten da behera egiten ari dela adingabeek alkohola kontsumitzen duten maiztasuna. Aurreko grafikoetan ikus daitekeenez, astean bitan edo hirutan edaten dutela esaten dutenen ehunekoa jaitsi egin da % 10,5etik % 4,3ra; eta, era berean, nabarmen igo da urtean ez dutela edaten esaten duten adin horretako pertsonen proportzioa. Kontsumoaren maiztasunaren jaitsiera hori EAEOIn ikusten da bere adierazle guztietan 1997. urteaz geroztik; “alkohola astean behin kontsumitzen dutenentzat”, % 16,7 izatetik % 15,2 izatera igaro baitira; “hamabostean behin kontsumitzen dutenentzat”, % 14,1etik % 13,9ra; “hilean behin”, % 9,8tik % 6,5era, eta abar, eta proportzio hori pixka bat igo da soilik “astean 4-6 aldiz kontsumitzen dutenentzat”, 1997an % 0,7 izatetik 2013an % 0,9 izatera igaro baita.


**15-18 urteko euskal gazteen banaketaren bilakaera asteburuetan alkohola kontsumitzearen arabera (1992-2012).**



Iturria: Euskadi eta drogak 2012

Aurreko paragrafoan esandakoa asteko egun guztietarako joera orokorra izan arren, ez da gauza bera gertatzen asteburua kontuan hartzen badugu. Asteburuan ikusten den joera da alkohola edaten dutela esaten duten 15-18 urteko pertsonen gero eta proportzio handiagoa dagoela. % 17,1ek esaten du 24 gramo alkohol baino gutxiago edaten duela (hiru bat garagardo), % 20,4k 24 -64 gr (3-6 garagardo), % 11k 6-12 kaña (65 gr-120 gr alkohol) eta % 3,8k 12 kañaren baliokidea baino gehiago alkoholean, 120 gr alkohol baino gehiago. Horrek esan nahi du 15-18 urteko gazteen herenak inguru alkohol gehiegi kontsumitzen duela asteburuetan.

**15-18 urteko euskal gazteen banaketaren bilakaera kontsumo intentsiboaren episodioen maiztasunaren arabera (egunetan) azken hilabeteetan (2008-2012).**




Iturria: Euskadi eta drogak 2012

Honako hau hartzen da alkoholaren kontsumo intentsibotzat: bost edari alkoholodun edo gehiago edatea (bost garagardo) bi ordutik beherako denbora-tartean. Goiko grafikoan ikus daiteke alkoholaren kontsumo intentsiboak egiten dituzten gazteen proportzioak behera egin duela, nahiz eta adin horretako pertsonak batez ere asteburuetan edan alkohola.

20

Gainera, "EAEOIn" eta "Euskadi eta Drogak" inkestan esaten dute alkohola modu intentsiboan kontsumitzen duten mutilen proportzioa neskena baino handiagoa dela. Izan ere, ondorengo grafikoan ikus daitekeenez, 15-24 urteko neska bakoitzeko 1,9 mutilek kontsumitzen dute alkohola modu intentsiboan.

**Alkoholaren kontsumo intentsiboa (binge drinking), sexuaren eta adin-taldearen arabera.**




Fuente: ESCAV 2013

Gertakari hori kontuan hartuta, esan behar dugu, “Drogak eta Eskola” azterlanaren 12. orrian nabarmentzen denez, nesken kasuan areagotzen ari dela alkoholaren gehiegizko kontsumoa; mutilen kasuan, aldiz, egonkor eusten zaio, eta “neska nerabeen alkohol-kontsumoari dagokionez, neska gehiagok edaten dute eta mutilek baino kantitate gehiago edaten dute, gutxienez 14 urtetik aurrera, . . .” eta jarraitzen du esanez “generoa “aldagaia”, babesgarri-faktoretzat hartzen zena beti neskentzat eta arriskukoa muti-lentzat, gaur egun ezin dela halakotzat hartu”. Hau da, azterlan horretan adierazten da, hainbat aldagai kontuan hartuta, hala nola kontsumoaren prebalentzia, edaten hasteko adina edo kontsumoaren maiztasuna edo intentsitatea, ikusten dela nesken eta mutilen portaera oso antzekoak direla alkoholaren kontsumoari dagokionez.

Izan ere, esate baterako, joera hori nabarmen ikusten da ondorengo grafikoan. Alko-holaren ohiko kontsumoa kontuan hartzen bada, ikus daiteke, lehendabizi, alkohola normalean edaten duten 15-24 urteko gazte gutxiago dagoela orokorrean, eta bigarre-nik, adin horretako neska gazteen kopurua mutilen kopurura hurbiltzen dela ohiko edale kopuruari dagokionez.


**Ohiko kontsumoaren prebalentzia, sexuaren eta adin-taldearen arabera**



*Iturria: EAEOI 2013*

Alkoholaren kontsumoari dagokionez, nesken portaera mutilenera hurbiltzeko joera hori EAEOIn ere azaltzen da, adibidez, 137. taulan “ Epe luzera osasun-arazoak — alkohol-kontsumoarekin lotutakoak— izateko arrisku handia duten pertsonen proportzioa (%), sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera”. Aipatutako taularen edukiaren zati bat biltzen duen ondorengo grafikoan ikus daiteke gazteen % 17,3k arrisku handia duela alkoholismoa pairatzeko; nesken kasuan, aldiz, % 17,9 da. Arrisku-egoeran dauden nesken proportzioa mutilena baino handiagoa da.

*Epe luzera osasun-arazoak eragiteko arrisku handia duen alkohol-kontsumoaren prebalentzia (%), sexuaren eta adin-taldearen arabera.*




*Iturria: EAEIOI 2013*

Edo “Asteko alkohol-kontsumoaren (mililitrotan) banaketa, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera” deituriko 146. taula, non adierazten den mutilentzat 7,6 mililitro dela eta neskentzat 4,7.

22

*Asteko alkohol-kontsumoaren banaketa (mililitrotan), sexuaren eta adinaren arabera.*




*Iturria: EAEIOI 2013*

Berriz ere egiaztatzen da 15-24 urteko pertsonak gainerakoek baino alkohol gutxiago edaten dutela eta adin horretako neskek gehiago hurbiltzen direla mutilengana.

Edo “Alkoholismoaren susmopean dauden pertsonen proportzioa (%) (CAGEren testa  $\geq 2$ ), sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera” deituriko 152. taula, non adierazten den gizonen kasuan % 4,2 dela eta emakumeen kasuan, aldiz, % 4,2.

*Alkoholismoaren susmopean dauden pertsonen proportzioa (%) (CAGEren testa >=2), sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera.*



*Iturria: EAEOI 2013*

Datu eta grafiko horiekin nabarmendu nahi dena da, esku artean ditugun inkestekiko koherentzian, ez duela ematen adingabeek aurreko belaunaldietakoek (urte horiekin berekin) baino gehiago edaten dutenik, baizik eta ia asteburuetan soilik edaten dutela modu intentsiboan. Eta ematen duela alkoholaren kontsumoari dagokionez jokabide-ereduetan desberdintasun gutxiago dagoela nesken eta mutilen artean.

23

Baldintzatzaile soziodemografikoei buruz, gainera, “Euskadi eta Drogak 2012” azterlanaren “EAEko droga-kontsumoari buruzko baldintzatzaile sozioekonomikoak, eta hezkuntzako eta osasuneko baldintzatzaileak” deituriko kapituluaren (160. orria) argi eta garbi laburbiltzen duen gaia aipatu behar da. “Droga-kontsumoaren eta aldagai sozioekonomikoen, osasunaren autobalorazioko aldagaien eta ikasketa-mailako aldagaien arteko lotura estatistikoa” epigrafean (176. orria) honako hau esaten da: “Substantzien kontsumo-mailetan eta jarraitutasun-indizeetan talde sozioekonomikoaren, hezkuntza-mailaren edo hautemandako osasun-egoeraren arabera izan daitezkeen aldeak azaltzeari ekin diogu aurreko epigrafeetan. Azterketa haren ondorioak ez dira eztabaida ezinak; izan ere, kontsumo askotan ez dago lehen begiratuan alde handirik, eta, kasu gutxi batzuetan baino ezin da adierazi kontsumoa aldatzen dela estatus sozioekonomikoa, hezkuntza-maila edo osasun-egoera gorabehera. Bestalde, alde edo joera gutxi-asko argiak ikusi arren, orain arte emandako datuen bidez ez dago jakiterik alde horiek faktore haien ondorioz sortu diren edo, alderantziz, beste faktore batzuek eragin dituzten – esate baterako, talde horien sexua eta adina, edo aztertu gabeko beste faktore batzuk–”. Hau da, ez da erraza aldagai sozialen, ekonomikoen eta hezkuntzako eta abarren eta kontsumoen edo bereziki alkohol-kontsumoaren arteko harremana ezartzea, zeren haien “indarra” ez da esanguratsua eta aldagai horietako baten edo batzuen aldaketak ez du ematen substantzia hau edo beste hau kontsumitzea azaltzen duenik.

15-18 urteko gazteen proportzioaren bilakaera, alkohola normalean kontsumitzen duten lekuen arabera (2006-2012).

INSTALAZIOAK	2006	2008	2010	2012
Tabernak	68,7	60,7	39,6	43,8
Diskotekak	33,9	35,9	25,6	27,0
Lonjetan	31,1	30,7	30,6	26,1
Kalean	60,0	52,4	47,4	40,1
Etxean	7,1	11,0	11,8	5,7

Iturria: Euskadi eta drogak 2012

Alkohola edaten den tokiei dagokienez, adierazi behar dugu lonjetan eta diskoteketan kontsumitzen dutenen pisu erlatiboak gora egin duela 2006. urteaz geroztik alkohola tabernetan, diskoteketan edo kalean kontsumitzen dutenekin alderatzen badugu. Hori gertatu da alkohola tabernetan eta kalean kontsumitzen duten gazteen proportzioa gehiago jaitsi delako sei urte hauetan.

Gehiegizko alkohol-kontsumoak, zenbaitetan, osasun-zerbitzuek esku hartzea eskatzen du. 2012an, larrialdi-zerbitzuek artatu zituzten 377 gaztetatik % 70 osasun-zentro batera eraman behar izan zituzten, ondoren. Ez zen sexuen arteko alderik nabarmendu.

Larrialdi-zerbitzuek artatutako gazteen sexukako banaketa (18 urtetik beherakoak), artatu ondoren osasun-zerbitzu batera eraman dituzten edo ez kontuan hartuz.

Osakidetza/Euskal osasun-zerbitzua, 2012.

24

	EMAKUMEZKOA		GIZONEZKOA		BI SEXUAK	
	K	%	K	%	K	%
Osasun-zentrora eramandakoak	128	48,5	136	51,5	264	70,0
Eraman ez zirenak	56	49,6	57	50,4	113	30,0
Guztira, artatutakoak	184	48,8	193	51,2	377	100

Artatu ondoren eramandako gehienak ospitale batera eraman zituzten (%71,4). Gainerakoak (%28,6) osasun-zentro batera.

2013an, larrialdi-zerbitzuetan artatu ondoren osasun-zentrotan batera eramandakoen ehunekoa ez da aldatu, baina gora egin du ospitale batera eramandakoen ehunekoa (% 76,3).

Larrialdi-zerbitzuetan artatutako 18 urtetik beherakoen ehunekoa, adinaren arabera banakatua. Osakidetza/Euskal osasun-zerbitzua, 2013.

	ADINA					
	12	13	14	15	16	17
eramandako pertsonen %	76,0	75,4	60,3	72,8	65,0	68,4
eramam ez ziren pertsonen %	24,0	24,6	39,7	27,2	35,0	31,6

# 4. ERAKUNDEEN ERANTZUNA

## 4.1. Aurrekariak

Intereseko dokumentu gehiago dauden arren, erreferentzia gisa hiru nabarmendu ditugu:

- **Adingabeak eta alkohola. Jarduketa-programa (2006ko urria).**

Aipatu beharreko aurrekari gisa esan behar dugu, duela 7 urte, garai hartako Droga Gaietako Zuzendaritzak gai honen inguruko hainbat proposamen egin zituela, Droga-mendetasunei buruzko V. Planean parte hartzen zuten erakunde guztiak -Eusko Jaurlaritza, Aldundiak, Udalak eta Mankomunitateak- itun soziala zen horretan inplikatur, “adingabeen alkohol-kontsumoa murrizteko osasun-hezkuntzaren ikuspegitik eta alkoholaren kontsumotik eratorritako kalteak eta arriskuak murrizteko ikuspegitik”.

- **“Adingabeak eta alkohola, eztabaidarekin jarraitzeko proposamenak”.**

Nerabeen alkohol kontsumoaren inguruan 2012ko abenduaren 18an, Portugaleten (Bizkaia), EDEX erakundeak, Vivir sin Drogas Fundazioak eta Portugaleteko Udalak izan zituzten elkarrizketen ondorio da. Horiek guztiek, gainera, BBKren Gizarte Ekintzaren eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren laguntza izan zuten. Nerabeekin eta/edo alkohol-abusuan esku hartzeko eremuekin (ikerketa, hezkuntza, familiak, osasuna, tokiko politikak, ingurune irekiko jarduna, adingabeen eskubideen babesa, eta abar) lotutako 45 pertsonak hartu zuten parte, herri-administrazioetakoak nahiz hirugarren sektoreko erakundeetakoak.

- **“Litrokotan ibili. Alkoholaren kale-kontsumoarekin lotutako istiluei aurre hartzeko plana”**

Eusko Jaurlaritzaren Droga Gaietako Zuzendaritzak argitaratu zuen, 2005ean, eta gazte batzuek asteburuetan alkohola eta drogak kontsumitzearen fenomenoak, hau da, “botelloia” deiturikoa lantzeko garatutako lanaren azken emaitza izan zen.

25

## 4.2. Jardun-ildoak

Erakundeen ekintza hainbat jardun-ildotan kokatuta gauzatu da. Jardun-ildo horiek Euskadiko Adikzioei buruzko VI. Planean aurreikusitako estrategiei dagozkie: zehazki, eskaintza kontrolatzea eta prebentzioa (unibertsala eta hautazkoa) dira.

### 4.2.1. Eskaintzaren kontrola

Drogen eta jokoaren presentzia eta eskaintza murriztera bideratutako neurriak dira, horiek indarreko legeriarekin bat egiten dutela ziurtatuz.

Mendetasunei buruz izan diren legeek eta horien aldaketek eskaintzaren kontrola hartu dute kontuan. Era berean, udal-ordenantzak daude. Udal batzuek (batez ere biztanle gehienak dituztenak) beren araudi propioak egin dituzte, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko 18/98 Legean ezarritako alderdiak garatzeko, hala nola alkohola bide publikoan edatea (berezi-ki adingabeen kontsumoa nabarmenduz), edari alkoholduenez hornitzea eta edari



alkoholdunak saltzea edo horien publizitatea egitea eta sustatzea. Kasu batzuetan legea betetzen ez duten adingabeek isunaren ordeztoko jarduerak egiteko aukera izan dezaten proposatzen da.

## 4.2.2. Prebentzioa

### 4.2.2.1. Prebentzio unibertsala

Herritarrei oro har edo inolako arrisku faktoretan oinarrituta identifikaturik ez dauden pertsona multzo zabalei zuzendutako programak edo jarduerak biltzen dira ildo horretan.

Drogen kontsumoa prebenitzeko printzipioak eta egungo estrategien edukia, bereziki eskoletan abian jarritako prebentzio unibertsaleko programenak, proba zientifikoetan oinarritzen dira. Epe luzearako ondorio neurgarriak, nahiz eta oso txikiak izan (Stothard eta Ashton, 2000) lorpen handia dira herritar askorekin lortzen badira. Oinarrizko printzipioak, funtzionatzen duena eta funtzionatzen ez duena, gaur egun oso definituta daude, eta frogatutako eraginkortasuneko ikuspegi batzuk daude, hala nola irakaskuntza elkarreragilea, arauen inguruko usteak aldatzea, gizarte-gaitasunen lehentasuna eta substantziei buruzko oinarrizko informazioa edukitzea; ikuspegi horiek guztiak orekatuak eta garrantzitsuak izan behar dute gazteen errealitate sozialerako.

Prebentzio unibertsaleko jardunak eta programak hainbat eremutan garatzen dira.

- **Komunitate-eremua:**

- Publizitate-kanpainak, esaterako, “Adingabekoei alkohola... tantarik ez” (2006 – 2013), “Bete zaitez... baina emozioz” (2007-2013).
- Elkarrekin nahiz droga-mendetasunen komunitate-prebentzioko lantalde teknikoek gauzatutako Osasunerako Hezkuntza Programak.

- **Familia-eremua:**

- Elkarrekin nahiz droga-mendetasunen komunitate-prebentzioko udal lantalde teknikoek gauzatutako “Gurasoen Eskolak” programak.

- **Eskola-eremua:**

- Osasun Sailak berrikuntza-proiektuetan, sustapenean eta Osasun Hezkuntzan gauzatutako programak. Eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak bultzatutako eta EAE osoko ikastetxeetan udal lantalde teknikoek bitartez garatzen diren Osasun Hezkuntzako edo/eta balioetan oinarritutako Hezkuntzako programa guztiak.
- Osasun Hezkuntzari buruzko prestakuntza-arloko eta hezkuntza berritzatzeko proiektuak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak gauzatutako Osasun Hezkuntzari buruzko curriculum-materialak egitea.

- **Osasun-eremua**

- Haur osasuntsuaren kontrolerako programetan (Pediatria), alkoholari buruzko aholkua ematen zaie (JPP) 12-14 urte bitarteko neska-mutilei.
- Familia-medikuntzako lehen mailako arretako kontsultetan ere alkoholari buruzko aholkua (JPP) ematen zaie 14-18 urte bitartekoei.
- Osasun-eskola: Osakidetza Euskal osasun-zerbitzuaren proiektu berri bat da. Osasun-arloko alfabetatzea lantzen da (Health Literacy), pertsonen zer faktore dauden jakin dezaten eta horien gaineko erabakiak hartzen ikas dezaten. Lehenengo esperientzietan zenbait gaixotasun landu zituzten, hala nola diabetesa; orain, jarduera-eremua osasun-sustapenera zabaldu da.
- Lehen Mailako Arretako Lehentasunezko Eskaintza (14-18 urte). Arrisku-faktoreak prebenitzeko ebidentzian oinarritutako adierazleak ditu, tartean dela alkoholaren kontsumo patologikoa. Hiru adierazle mota hartzen dira kontuan, kontsultetara etortzen den populazioaren baheketari, estaldurari eta arreta egokiari dagokienez, prebentziozko esku hartzeak balioesteko.
- Alkoholari buruzko prebentziozko aholkua ematen dute emaginek, arriskuan egon daitezkeen gazteak prebenitzeko eta garaiz atzemateko.

#### 4.2.2.2. Prebentzio selektiboa

Biztanleriaren azpitalde jakin batzuentzat —substantzia toxikoen abuserako arrisku handiko subjektutzat hartu direnentzat— bideratutako akzio eta estrategia multzo bat da, azpitalde horiek arrisku espezifikoak dituztelako, beren egoerara egokitutako prebentzio-jardueretan zuzenean parte hartzea eskatzen dutenak.

Helburu nagusia drogen abusua saihestea da, arrisku handiko azpitaldea osatzen dutenak babesteko faktoreak indartuz (adibidez, autoestimua, arazoak konpontzea, eta abar); hortaz, faktore horiek arrisku-faktoreen aurkako baliabide eraginkor gisa erabiltzen dira (esate baterako, drogen abusua egiten duen jendearekin egiten den erkatzea).

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak eta Droga-mendetasunen komunitate-prebentzioko lantalde teknikoek sustatutako ekintzak hainbat eremutan garatu dira:

- **Jaien eta aisialdiaren eremuan:**

- Alkohol-kontsumoarekin lotutako arriskuak prebenitzeko eta murrizteko programak, aisiaguneetan (lonjak, kontzertuak, herrietako jaiak, eta abar) esku-hartzeak gauzatuz.

- **Komunitate-eremua:**

- Ingurune irekiko hezkuntza-programak adingabeekin; programa horien bitartez, aisiaguneetan eta ingurune irekiko guneeetan hezkuntza-harreman zuzena izanda adingabeen eta gazteen arrisku-egoerak atzematen eta artatzen dira.

- Nerabeentzako programak, alkohol-kontsumoa lantzea eta taldearen presioa helburu dutenak, mimo emanaldien eta antzerki-ikuskitzen bitartez.

- **Familia-eremua:**

- Esku-hartze goiztiarreko programak adingabeekin eta familiekin. Programa horien helburua kalteberatasun-faktoreak lantzea da.

- Kalteberatasun handiko nerabeen familiei arreta eta esku-hartze terapeutikoa ematea.

- Adikzio-arazoak eta portaera problematikoak dituzten nerabeei banako arreta ematea.

- **Eskola-eremua:**

- EAEko ikastetxeetan egindako esku-hartzeak, arrisku-faktoreen eraginpean dauden eta alkohol-kontsumoarekin arazoak sortzeko gai diren nerabeentzat bideratuak. Esku-hartze horien bitartez lortu nahi dena da alkohol-kontsumoarekin lotutako arriskuez jabetzea, kontsumo horrek eragin ditzakeen kalteei eta arriskuei buruzko informazioa izatea eta autozaintzako jokabideak indartzea, alkohola kontsumitzea erabakitzen badute.

- Arriskua murrizteko eta droga-mendetasunak prebenitzeko programa, gizarte-bazterketako arriskuan dauden gazteentzat alkohol-kontsumoa prebenitzeko eta/edo murrizteko eta kontsumo osasungarriko ereduak errazteko ikasleen autonomia pertsonala eta garapena ahalbidetuko duten trebetasunen eta estrategien bitartez (batez ere Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetara, Lantegi Eskoletara eta inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrei bideratuta daude).

### 4.2.3. Alkohol kontsumoagatik sortutako patologiei osasun-arreta ematea

Osasun-sistemak alkohol gehiegi kontsumitzeagatik sortutako arazoak eta patologiak artatzeko zerbitzuak eskaintzen ditu. Lehen mailako arretan, pediatria-zerbitzuan (12-14 urte) nahiz familia-medikuntzan (14-18 urte), alkohol kontsumoak sortutako patologiei heltzen zaie, eta ospitale-arretara edo osasun mentalera bideratzen dira.

Osasun mentaleko zerbitzuan alkohol-mendekotasunak eta hortik eratorritako arazo mentalak diagnostikatzen, tratatzen eta errehabilitatzen dira.

Emergentsietako zerbitzuek osasun-aholkua ematen dute: telefono-arreta eta aurrez aurrekoa ere bai, intoxikazio etilikoetan eta horien bigarren mailako prozesuetan. Horretaz gain, telefono bidez ere argitzen dira alkohol kontsumoarekin erlazionatutako zalantzak, eta bideratu ere egiten dira, behar izanez gero, beste eremu batzuetara.

Ospitale-arreta ere hor dago, zeinak larrialdi-zerbitzuak, ospitalizazioa eta kanpo-kontsultak eskaintzen dituen, alkohol-kontsumoagatik eta horren ondorioengatik sortutako eskariari erantzuteko.

## 4.3. Araudia

### 4.3.1. 18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa

Erreferentziazko araua da Euskadin edari alkoholodunen publizitateari, salmentari eta kontsumoari dagokionez.

Droga-mendetasunei aurrea hartzeari buruzko kapituluan, drogen kontsumoari aurrea hartzeko neurri orokorrak arautzen dira eta edari alkoholodunen eta tabakoaren sustapena, publizitatea, salmenta eta kontsumoa kontrolatzeko neurri batzuk ezartzen ditu.

Legean ezartzen denaren arabera, botere publikoen eginkizuna da, bakoitzaren esku-menen barruan, honako helburu hauek dituzten programak eta jarduerak garatzea, sustatzea, laguntzea, koordinatzea eta kontrolatzea:

- Biztanleria heztea osasunerako ohiturak sortzeko. Hezkuntza-programa horietan arreta berezia jarriko da gazteengan.
- Gizartean drogak agertzea, sustatzea eta saltzea desagerraraztea eta, bestela, mugatzea.

Edari alkoholodunen sustapena, publizitatea, salmenta eta kontsumoa kontrolatzeko neurriei dagokienez, honako hauek biltzen dira, besteak beste:

- Debekatuta dago bezeroak batez ere adingabeak dituzten establezimenduetan edari alkoholodunen publizitatea egitea.
- Debekatuta dago adingabeen edari alkoholodunak saltzea edo ematea.

Gaur egun, Osasun Saila Adikzioei buruzko lege berri bat egiten ari da. Lege horren bitartez drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko 18/1998 Legea eguneratu nahi da, gaurkotasan handiagoko gaiei eta arau-arloko esku-hartzeari buruz ikuspegi berria behar duten gaiei dagokienez, errealitate sozial berrien eta kontsumo-eredu berrien arabera; eta ildo horretan, adingabeek egiten duten alkoholaren gehiegizko erabilera landu nahi da, besteak beste.

Gainera, intereseko beste lege batzuk aipatu behar dira.

#### 4.3.2. 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko antolamendu sanitarioarena

Lege horren 2. artikuluan, osasunaren erakunde-esparrua definitzen da:

- Euskal aginte publiko guztien lehentasunezko zeregina da, izan, jarduera sozio-ekonomikoko sektore bakoitzean osasuna sustatzea eta indartzea, bizitza-ohitura osasungarriari adore emateko, arrisku-faktoreak kentzeko, ondorio negatiboen intzidentzia ezabatzeko eta bere izaeragatik dago-kion leku nagusiaren gainean sensibilizatu eta kontzientziatzeko.
- Eusko Jaurlaritzaren zeregina da Euskadin osasunaren instituzio-eremu hori jagotea, bai gomendioak bideratuz edo egokituz jotzen dituen neurriak hartuz, sektore-politika guztietan kontuan har daitezela zaintzeko, eta bai ekintza sanitario hutsen osagarri diren diziplina anitzeko ekintza positiboen diseinua emanez, biztanleriaren osasun-mailan etengabeko hobekuntza lortzeko.

#### 4.3.3. 7/1982 Legea, ekainaren 30ekoa, Eskola Osasunari buruzkoa

Eskola-osasuna sustatzeko tresna eraginkorra izan nahi du, betiere eskola-osasuna kontzeptu zabalenean ulertuta, non osasun-azterketez gain, alderdi psikopedagogikoak edo osasun-hezkuntza funtsezko zati diren.

#### 4.3.4. 4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa, ikuskizun publikoei eta jolas-jarduerei buruzkoa

Euskadin garatzen diren ikuskizun eta jolas-jarduera publikoak arautzen ditu. Lege horretan, arau-hauste larri gisa tipifikatzen da adingabeak onartzea edo adingabeek parte hartzea adingabeentzat debekatuta dauden lokaletan edo ikuskizunetan eta adingabeei edari alkoholodunak saltzea edo ematea; baita edari alkoholodunak kontsumitzeko baimena ematea ere esanbidez debekatuta dauden lokaletan edo instalazioetan.

#### 4.3.5. Udal-ordenantzak

Era berean, hainbat tokiko arau daude, alkohol-kontsumotik eratorritako arazoak lantzen dituztenak.

Arautzen duten gaiaren arabera, hiru ordenantza mota bereiz daitezke:

- Edari alkoholodunen eta tabakoaren sustapena, publizitatea, salmenta eta kontsumoa elkarrekin arautzen duten ordenantzak:
  - Alkohol-kontsumoaren eta tabakoaren sustapena, publizitatea, salmenta eta kontsumoa kontrolatzeko neurriak arautzen dituen ordenantza, Laudio 2001.
  - Alkohol-kontsumoaren eta tabakoaren sustapena, publizitatea, salmenta eta kontsumoa kontrolatzeko neurriak arautzen dituen ordenantza, Arrigorriaga 2004.

- Bereziki edari alkoholdunen publizitatea, salmenta eta kontsumoa arautzen duten ordenantzak:
  - Alkoholismoaren prebentzioari buruzko ordenantza. Gasteiz 1990
  - Edari alkoholdunen kontsumo okerra arautzen duen ordenantza. Elgoibar 2004
  - Alkoholaren publizitatea, salmenta eta kontsumoa arautzen duen ordenantza. Zarautz 2004
  - Alkoholaren publizitatea, salmenta eta kontsumoa arautzen duen ordenantza. Portugalete 2010
  - Alkoholaren publizitatea, salmenta eta kontsumoa arautzen duen ordenantza, Barakaldoko udalerrikoa. Barakaldo 2010
- Edariak jabari publikoko guneetan, orokorrean, kontsumitzea eragozteko ez ezik, gizabidearen kontrako beste portaera batzuk ere eragozteko helburu duten ordenantzak.
  - Bide publikoko zibismoari, bide publikoa erabiltzeari eta bide publikoko garbitasunari nahiz hiri-paisaiak babesteari buruzko ordenantza. Donostia 2004
  - Jabari publikoko guneetan eta eremuetan edari alkoholdunak kontsumitzea eta gizalegearen kontrako beste portaera batzuk eragozteko Udal Jarduna arautzen duen ordenantza. Galdakao 2009
  - Eredu Publikoko ordenantza. Bilbo 2010.

## 4.4. Plangintza

### 4.4.1. Osasun Plana, 2013-2020. Osasuna, pertsonen eskubidea, guztion ardura. Euskadirako Osasun Politikak

Adingabeei eta alkoholari buruzko programa hau guztiz bat dator Osasun Planarekin, izan ere, plan horren ekintza-ildoetako batean aurreikusten da modu osasungarrian bizitzeko Euskadiko haurren eta gazteen gaitasunak hobetzeko politikak garatzea, osasungarriak ez diren jokabideen arriskuak gutxitzeko eta aukera sozialak eta afektiboak hobetzeko.

Osasun Plana Osasunaren ikuspegian oinarritzen da Politika Guztietan: pertsona guztien osasuna Eusko Jaurlaritzaren eta erakunde guztien helburua da. Hortaz, nerabeek alkohol gehiegi kontsumitzen dutelako gaia konpromiso politikotik landu behar da, erakundeen arteko koordinazioan.

### 4.4.2. 2011-2015eko Euskal Autonomia Erkidegoko Mendekotasunen VI. Plana

Adikzioen Planari dagokionez, diagnostikoa egiten duten gogoeta interesgarriak ditu, orain aurkeztuko diren gomendioak iradoki ditzaketanak. Izan ere, plan horretan adierazten da gizarteak izugarri arbuiatzea eragiten duten eta arrisku-faktore asko eta garrantzitsu asko elkartzea eskatzen duten beste droga batzuk ez bezala, alkohola bizimodu eta jokabide oso normalizatuekin eta gizartean onartuta daudenekin lotzen dela, eta horrek eragiten du arriskuaren pertzepzioa txikia izatea eta ohiko kontsumoa ahalbidetzea. Bestalde, familia denez jokabide-ereduak, jarrerak eta balioak ematen dituenak, adierazten du familiako kideen jokabidea eta jarrerak ikusteak na-

barmen eragingo duela arrisku pertsonaleko faktore gisa. Jardun-estrategiei dagokionez, edari alkoholduen publizitatea eta sustapena kontrolatzeari buruzko ekintzak zehazten ditu, ibilgailuak gidatzean alkohola kontsumitzeari eta jaietan eta aisialdian alkoholaren gehiegizko kontsumoak dakartzan arriskuei buruzko informazioa emateko, arriskuak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak mantentzeari buruzko ekintzak; eta, azkenik, Laguntza Terapeutikoko Ildo estrategikoaren eta Koordinazio Ildoaren eta profesionalei laguntza emateko Ildoaren eremuan, alkoholaren arazoari jarraipena egiteari buruzko ekintzak ditu.

#### 4.4.3. Euskadiko III. Gazte Plana, 2020

Gaur egun indarrean dagoen Gazte Planean adierazten da gazteen alkohol-kontsumoaren maila dela osasun publikoko arazo nagusietako bat kolektibo horri dagokionez, eta hori gertatzen dela neurri handi batean kontsumo hori, batzuetan, beste arrisku-jokabide batzuekin lotuta dagoelako; esate baterako, ausarkeriaz gidatzea, indarkeria edo sexu-praktika ez seguruak. Izan ere, nahiz eta gazte gehienek bide-segurtasuneko neurriak hartzen dituzten, hala ere, nabarmentzekoa da gazte askok alkohola edanda gidatu izan duela autoa, eta, oraindik ere, gazte gehienak trafiko-istripuan hiltzen direla. Horregatik, planean proposatzen da hautsi egin behar dela astialdiaren eta alkohol-kontsumoaren arteko binominoa, alkohol-kontsumoari dagokionez, prebentzio- eta sentsibilizazio-lana bideratu behar dela bereziki arrisku handiena duten kolektiboetara, eta nahitaez lan egin behar dela alkohola kontsumitzen hasteko adina atzeratzeko. Eta Osasun Arloko helburu estrategiko eta esku hartzeko ildo gisa proposatzen du alkohol-kontsumoa murriztera bideratutako neurriak indartzea.

# 5. GURE INGURUNeko ERREFERENTZIAK

## 5.1. Osasunaren Mundu Erakundea

### 5.1.1. Stockholm-eko Adierazpena (Gazteak eta alkohola, 2001)

2001eko otsailean, Gazteei eta Alkoholari buruz Stockholm-en egin zen Osasunaren Mundu Erakundearen Europako Ministro Biltzarraren esparruan, Gazteei eta Alkoholari buruzko Adierazpen bat idatzi zen. Adierazpen horretan lau elementu nagusi daude:

- Alkohola gazteen osasun-arazo garrantzitsu gisa identifikatzea.
- Osasun publikoko eta alkohol-kontsumoa kontrolatzeko politikak garatzeko premia berrestea, merkataritza- edo ekonomia-arloko interesen interferentziarik gabe.
- Gazteei aukera ematea politikak garatzeko prozesuan parte har dezaten.
- Estatuko eta tokiko helburuak ezartzeko premia, alkoholak gazteen osasunean duen eragina murrizteko.

33

Adierazpen horren bitartez, Osasunaren Mundu Erakundeak antolatuta gazteei eta alkoholari buruzko Europako Ministro Konferentzian parte hartu zutenek estatu kideei, gobernu-erakundeei, gobernuz kanpoko erakundeei eta gai horretan interesa duten beste sektore batzuei eskatu zieten osasunaren alde egin zezatela eta osasunean ez ezik gazteen ongizatean ere inberti zezatela. Gazteei bideratutako alkohol-politikek erantzun sozialaren zati izan beharko lukete; izan ere, gazteek alkohola kontsumitzeak helduen gizartearen jarrerak eta praktikak islatzen ditu neurri handi batean.

### 5.1.2. Munduko Estrategia alkoholaren erabilera kaltegarria murrizteko

2010eko maiatzean egindako Osasunaren 63. Mundu Biltzarrak bermatuta, honako hauek dira strategiaren helburuak: alde batetik, alkoholaren erabilera kaltegarriak eragindako arazoen (osasun-arlokoak, sozialak eta ekonomikoak) izaera eta larritasunari dagokionez munduko kontzientzia areagotzea; eta, bestetik, gobernuen konpromisoa indartzea alkoholaren erabilera kaltegarria indargabetuko duten neurriak hartzeko.

Estrategia horrek proposatzen duen politikako eta esku hartzeko aukeretako bat komunitateak mobilizatzea da, adingabeei alkohola saltzea eta biztanleria-talde horrek edari alkoholdunak kontsumitzea prebenitzeko eta batez ere gazteentzat eta beste arrisku-talde batzuentzat alkoholik gabeko inguruneak sortzeko eta babesteko.



### 5.1.3. Europako Ekintza Plana, alkoholaren kontsumo kaltegarria murrizteko, 2012-2020

Plan hori Osasunaren Mundu Erakundearen Europako Eskualdeko 53 estatu kideek onartu zuten 2011ko irailean, eta aukera politiko sorta bat eskaintzen du, alkoholaren erabilera kaltegarriaren ondorioak murrizteko ebidentzian oinarritutako aukera politikoak, hain zuzen ere. Zehazki, hamar ekintza-arlo proposatzen dira:

1. Lidergoa, kontzientzia eta konpromisoa
2. Osasun-zerbitzuen erantzuna
3. Europako Erkidegoaren ekintza
4. Alkoholaren eraginpean gidatzearen aurkako politikak eta neurriak
5. Alkohola lortzeko aukera
6. Publizitatea edari alkoholdunetan
7. Prezio-politikak
8. Alkohol-kontsumoaren eta intoxikazio etilikoaren ondorio negatiboak arintzea
9. Legez kontrako alkoholak eta produkzio informaleko alkoholak osasun publikoan duen eragina murriztea
10. Jarraipena eta zaintza

34

## 5.2. Europar Batasuna

### 5.2.1. Europar Batasunaren erkidego-estrategia alkoholarekin lotutako kalteak murrizten laguntzeko estatu kideei. Europako Batzordearen 2006ko urriaren 24ko komunikatua.

Estrategia horren helburua estatu kideei laguntzea da, alkoholaren kontsumo kaltegarritik eta arriskutsutik eratorritako kalteak murrizteko. Ezartzen dituen 5 lehen-tasunetako bat gazteak eta haurrak babesteari buruzkoa da, eta estrategia horren hiru helburu zehatzetan adingabeen alkohol-kontsumoa kontrolatzea eta kontsumo arriskutsua eta kaltegarria gazteen artean murriztea biltzen dira.

Europako estrategia horrek publizitateari, salmentari eta kontsumoari buruzko araudia nabarmentzen du, eta produktu horiek sal daitezkeen lekuak eta produktu horien kontsumoa legezkoa den lekuak eta adinak aipatzen ditu bereziki.

### 5.2.2. Kontseilu Europarraren 2001eko ekainaren 5eko Gomendioa gazteek, eta, bereziki, haurrek eta nerabeek alkohola kontsumitzeari buruz.

Gomendio horren helburua gizartearen maila guztiak sentsibilizatzea da, edari alkoholdunen produzitzaileak eta banatzaileak eta gurasoak barne, gazteek alkoholaren kontsumo desegokia egiteak dituen arriskuei buruz. Arazoaren hainbat alderdi ere lantzen ditu: gehiegizko kontsumo irregularretik hasita gazteen alkoholarekiko mendetasuneraino.

Gomendio horren arabera, estrategia horien ardatz nagusiek honako hauek izan beharko lukete:

- gazteek alkohola kontsumitzearekin lotutako arazoan alderdi guztiak iker daitezen sustatzea, arazo horiei aurre egiteko neurriak ezarri eta ebaluatzearen.
- bermatzea osasuna sustatzeko politika orokorrek —interesa duten talde guztientzat (haurrak, nerabeak, gurasoak, irakasleak, eta abar) bideratuta daudenek— kontuan hartuko dutela alkoholaren arazoa.
- gazteei alkoholari buruzko informazioa ematera bideratutako sektore anitzeko ikuspegia sustatzea, hala badagokio, hezkuntzako, osasuneko eta gazteen zerbitzuek, legea betetzeko ardura duten erakundeek, gobernu kanpoko erakundeek (GKE), hedabideek eta abarrek parte hartuta.
- haurrei, nerabeei eta gurasoei bideratutako sentsibilizazio-materialaren produkzioa sustatzea.
- osasunarekin lotutako ekintzetan eta politiketan gazteek duten partaidetza areagotzea.
- mozkortuta gidatzeak dakartzan arriskuei buruz gazteen arreta erakartzera bideratutako ekimenak abian jartzea;
- lehenbailehen jardutea adingabeei alkohola legez kontra saltzearen aurka.

## 5.3. Estatu Espainola

### 5.3.1. Drogei buruzko estrategia nazionala, 2009-2016

Estrategia horren helburu orokorren artean honako hauek nabarmendu behar dira:

- Kontzientzia soziala sustatzea drogei lotutako arazoei, kalteei eta kostu pertsonal eta sozialei buruz, haiek saihesteko aukera errealarri buruz eta gizarte osoa hartarako irtenbidearen zati aktiboa izatearen garrantziari buruz.
- Drogak kontsumitzen hasteko adina atzeratzea.
- Estrategian ezarritako esparrua garatzeko eta osatzeko, bi Ekintza Plan egin dira. Plan horiek Estrategiaren indarraldi osoa hartzen dute (2009-2012 aldiko Ekintza Plana eta 2013-2016 aldiko Ekintza Plana). Zehazki, 2013-2016 aldiko Ekintza Planean alkoholari eta adingabeei buruzko araudia aztertzeke eta hobetzeko proiektu bat egitea jasotzen da.

### 5.3.2. Legeria

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta berdintasun Ministerioak iragarri zuen lege-proiektu bat aurkeztuko zuela 2013ko uda baino lehen “adingabeek edari alkoholodunak kontsumitzea eta horien ondorioak prebenitzeko”, nahiz eta dokumentu hau idatzi denean, proiektu hori aurkeztu gabe dagoen oraindik.

Estatu-eremuan ez dago edari alkoholodunen salmenta, kontsumoa eta publizitatea elkarrekin arautzen dituen legerik, nahiz eta hainbat eremutan (eremu horretakoak bertakoak) alderdi hauei buruzko murrizketak arautzen diren:

- 1/1992 Lege Organikoa, otsailaren 21ekoa, Hiritarren Segurtagunari buruzkoa

Lege horren arabera, Hiritarren Segurtagunaren arau-hauste larritzat hartzen da:

*“Adingabeak establezimendu publikoetan edo ikuskizunetan onartzea, hori debekatua egonik, eta horiei edari alkoholodunak saltzea edo zerbitzatztea”.*

- 34/1988 Lege Orokorra, azaroaren 11koa, Publizitatearena

Arau horren arabera:

*“Debeku da 20 gradu baino gehiagoko alkohol-maila duten edarien telebista bidezko publizitatea.*

*Debekaturik dago 20 gradu baino gehiagoko alkohol-maila duten edari alkoholodunen publizitatea egitea haiek saltzea edo kontsumitzea debekaturik dagoen lekuetan.”*

Nolanahi ere, autonomia-erkidegoek beren arau propioen bitartez arautu dituzte edari alkohol-dunen publizitatea, salmenta eta kontsumoa. Kasu gehienetan droga-mendetasunaren alorreko prebentzioari, laguntzari eta txertatzeari buruzko beren arau orokorren bitartez egin dute, baina autonomia-erkidego batzuek (Asturias, Gaztela-Mantxa, Extremadura, Galizia eta Nafarroa) arau espezifikoak aukeratu dituzte adingabeek edari alkohol-dunak kontsumitzea prebenitzeko.

2011ko irailaren 29an, Adingabeek edari alkohol-dunak kontsumitzearen aurkako agiria sinatu zen Madrilen, gizartea sartzeko nerabeen alkohol-kontsumoaren prebentzioaren alorrean.

# 6. ADINGABEAK ETA ALKOHOLA DEITURIKO PROGRAMAREN HELBURUAK

## 1. HELBURUA

Erakundeen ekintza areagotzea nerabeek alkohola kontsumitzearen aurrean.

*Adierazlea*

Alkoholaren kontsumoa prebenitzeko programak eta gazteentzako zuzenduta dauden esku hartze zenbakia.

## 2. HELBURUA

Alkohola kontsumitzen hasten diren adingabeen kopurua jaitea.

*Adierazlea*

15 eta 24 urte bitarteko pertsonen alkohol kontsumoaren ehunekoa.

### ALKOHOLAREN KONTSUMO TASAK 15 ETA 24 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN. 2012

Esperimentala (gutxienez biziizan behin edan dutela) %83,2

Azkenaldiko (gutxienez azken urtean behin edan dutela) %78,6

Egungo (gutxienez azken hilean behin edan dutela) %68,7

*Euskadi eta Drogak 2012*

## 3. HELBURUA

Kontsumitzen hasteko adina atzeratzea.

*Adierazlea*

Gazteen alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adina.

### GAZTEEN ALKOHOLA KONTSUMITZEN HASTEKO BATEZ BESTEKO ADINA. (15-24 Y 15-18 URTEKO KOHORTEAK). 2012

Kohorte	Batez besteko adina
15-24 urte	15,3
15-18 urte	14,8

*Euskadi eta Drogak 2012*

## 4. HELBURUA

Adingabeen arrisku handiko kontsumoak eta kontsumoaren maiztasuna murriztea.

*Adierazlea*

Alkoholaren gehiegizko kontsumoa eta arriskutsua egiten dutenen gazteen ehunekoa.

ALKOHOLAREN GEHEGIZKO KONTSUMOA ETA ARRISKUTSUA GAZTEEN ARETEAN. (15-24 Y 15-18 URTEKO KOHORTEAK). 2012	
%24,8	24,8%
%14,8	14,8%

*Euskadi eta Drogak 2012*

(Gehiegizko kontsumoa: azken 30 egunetan gutxienez behin 65 eta 120 g arteko alkohola hartzea. Kontsumo arriskutsua: 120 g baino gehiagokoa. 1.500 cc 10 graduko ardo).

## 5 . HELBURUA

Kolektibo horrek alkoholaren kontsumoarekin lotuta dituen arazoei heltzea.

*Adierazlea*

Eragile ezberdinen arteko koordinazio tresna (Gizarte Zerbitzuen, Osasunaren eta Hezkuntzaren artean) definitu, diseinatu eta abian jartzea.

## 6 . HELBURUA

Gazteek beren osasunarekin lotutako politiketan, bereziki alkoholarekin lotura dutentan, duten partaidetza areagotzea.

*Adierazlea*

Zenbat gazte parte hartzen duten eraginkor alkohola prebenitzeko programaren bilakaeran eta gauzatzeko ekintzetan.

## 7 . HELBURUA

Alkohola kontsumitzeak eta alkoholez abusatzeak duten arriskuari buruz nerabeek duten ezagutza hobetzea. Alkoholari dagokionez adingabeen hezkuntza eta sentsibilizazioa areagotzea eta alkohola kontsumitzearekiko alternatiba esanguratsuak garatzea.

*Adierazlea*

Ikerketa ad hoc egin aztertzeko zer eragina duten hartutako ezagutzek alkoholaren kontsumoak duen arriskua hautemateko.

## 8 . HELBURUA

Gazteek edateko jasaten dituzten presioak murriztea, bereziki alkoholaren sustapenei, babesletzari eta eskuragarritasunari dagokionez.

*Adierazlea*

Adikzioen legea onartu eta argitaratu non alkoholaren sustapena, salmenta, publizitatea eta erabilgarritasuna arautzen da.

## **9 . HELBURUA**

Osasunerako arriskurik ez dakarten aisialdiko alternatibak eskaintzea.

*Adierazlea*

Zenbat ekintza burutu diren alkoholik gabeko aisialdirako programa irauten duen bitartean .

## **10 . HELBURUA**

Bizi-aztura osasungarriak eta osasunean oinarritutako kultura —adingabeek kontsumitzea arbuiatzen duena— aktiboki sustatzea, baita portaera horiei lotutako problematikari dagokionez gizartearen jarrerak eta portaerak ere.

*Adierazlea*

Gutxienez programa bat abian jartzea, arlo bateko osasun-aktiboak identifikatzeko eta osasun-jarrerek sustapenarekin duten erlazioa ezagutu arazteko.

# 7. GARAPENA, KOORDINAZIOA ETA JARRAIPENA

Erakundeen arteko eta sektoreen arteko koordinazioa ezinbestekoa da adingabeek alkohol gehiegi kontsumitzearen arazoari modu integralean eta eraginkorrean heltzeko. Horregatik, Batzorde Gidatzailea sortzea proposatzen da; programa honen organo gidari gisa jardungo du eta honako erakunde hauek osatuko dute:

- Eusko Jaurlaritza:
  - Lehendakaritza
  - Osasun Saila
  - Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura
  - Enplegua eta Gizarte Politikak
  - Justizia eta Herri Administrazioa
  - Segurtasuna
- Foru-aldundiak
- Udalak eta EUDEL
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

41

Batzorde Gidatzaile hori gutxienez urtean behin bilduko da.

Era berean, lan teknikoko batzorde edo talde bat eratuko da, programa hau abian jartzea eta programa honen ebaluazioa nahiz jarraipena koordinatuko dituen. Horretarako, honako ekintza hauek gauzatu ahal izango ditu:

- Proposamenak egitea sailen arteko eta erakunde arteko batzordeari.
- Dauden datuak bildu eta aztertzea.
- Proposamenak egitea gaur egun dauden baliabideak hobetzeko.
- Adingabeei eta alkoholari buruzko programen eraginkortasun-maila ebaluatu eta egiaztatzea.
- Programa honetan bildutako ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egitea.



Ekintza horien jarraipena eta ebaluazioa egingo da programan ezarritako helburuen betetze-mailarekin edo beste edozein eragin motarekin alderatuta, baita ekintza horien ezarpenarekin, garapenarekin eta gauzatze-erritmoarekin alderatuta ere.

Batzorde teknikoa honela osatuko da:

- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak izendatutako ordezkari bat.
- Osakidetzak izendatutako ordezkari bat.
- EUDELEk izendatutako ordezkari bat.
- Osasun Sailak izendatutako bi ordezkari

Programa honetan aurreikusitako ekintzak gauzatzea eta garatzea dagokion erakundeak koordinatuko du, 8. paragrafoan zehazten den moduan.

Jarraipena eta ebaluazioa egitea eskatzen duten zereginak gauzatzeko, Batzorde Gidatzaileak nahiz Batzorde Teknikoak Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren aholkularitza eta laguntza izango dute, baita Droga-mendetasunen Euskal Behatokiarena ere. Behatoki hori Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 1997ko otsailaren 4ko Aginduan arautzen da.

Programa honetan aurreikusitako ekintzak legegintzaldi honetan hasi beharko dira, organo gidari gisa jarduten duen Batzorde Gidatzaileak besterik ezartzen duen kasuetan izan ezik.

# 8. GARATU BEHARREKO EKINTZAK

EKINTZAK	KOORDINAZIOA	INPLIKATUTAKO BESTE SAIL ETA AGENTE BATZUK
<b>8.1. ERKIDEGO INGURUNEA</b>		
1. Droga-mendetasunen talde teknikoak, adikzioen komunitate-prebentzioko programak eta hirugarren sektoreko arriskuak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak sustatzea.	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza).	Tokiko erakundeak, foru-aldundiak, GKEak. Osakidetza
1.1. Laguntzei buruzko Aginduan kapitulu hauetarako bideratutako aurrekontu-zuzkidura finkatzea, eta ahal den neurrian igotzea.	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza).	
1.2. Adikzioen Planean aurreikusitako prebentzio unibertsaleko eta selektiboko programak indartzea.	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza).	Tokiko erakundeak, foru-aldundiak, GKEak.
1.3. Espezifikoki edo batez ere gazteen alkohol-kontsumoa prebenitzera bideratutako programak finkatzea.	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza).	Tokiko erakundeak, foru-aldundiak, GKEak.
2. "Hurbiltasun-programak" deiturikoak sustatzea eta hedatzea batez ere gazteak biltzen diren jaien eta aisialdiaren eremuetan.	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura (Gazteria Zuzendaritza). Tokiko erakundeak, GKEak.
3. Aisialdi-eskaintzen dibertsifikazioa eta eskuragarritasuna sustatzea eguneko eta gaueko jardueretan.	Tokiko erakundeak	Gazteria. GKEak. Foru Aldundiak
4. Alkohola lonjetan kontsumitzearen arriskuak murrizteko esku hartzea.	Osasun Saila	Tokiko erakundeak
4.1. Lonjan arriskuak prebenitzeko eta murrizteko esku-hartze espezifikoko ebaluatzea eta sustatzea; euskarri-materialak egitea.	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)	Tokiko erakundeak, GKEak.
4.2. Alkohol-kontsumoaren eta adikzioen prebentzioaren alorrean gazteen lonjetako autoerregulazioa edo barne-arauak sustatzea	Tokiko erakundeak	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)
5. Atzemandako premiekin bat datorren prestakuntza-plan bat diseinatzea Euskal Autonomia Erkidegoko polizientzat.	Segurtasuna	Osasuna eta Tokiko erakundeak

## 8.2. HEZKUNTZA EREMUA

<p>6. Gazte asko biltzen diren ekitaldietan (herrietako jaiak, Euskal Eskola Publikoaren eguna, Araba Euskaraz, Kilometroak, Ibilaldia, Nafarroa Oinez, Herri Urrats...) alkoholaren abusua prebenitzeko programa espezifikoak sustatzea.</p>	<p>Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura.</p>	<p>Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza).</p> <p>Tokiko erakundeak. Ikastolen Elkarteak</p>
<p>7. Titulartasun publikoko prebentzio unibertsaleko baliabide didaktikoak — irakasleei, familiei eta ikasleei bideratuta daudenak — sortzea, "online", ikasleen alkohol-kontsumoa prebenitzeko.</p>	<p>Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)</p>	<p>Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura. Tokiko erakundeak</p>
<p>8. Prebentzio unibertsaleko eta selektiboko programak aztertzea eta diseinatzea eskola-eremuan.</p>	<p>Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)</p>	<p>Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura. Tokiko erakundeak</p>
<p>9. Ikasleei eta hezkuntza-komunitateari bideratutako alkohol-kontsumoaren prebentzio unibertsaleko programa bat garatzea eta ezartzea.</p>	<p>Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)</p>	<p>Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura. Tokiko erakundeak</p>
<p>10. Gurasoei bideratutako proiektuak -Guraso Eskolak- sustatzea; batez ere alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoa landuko duten proiektuak, eta, gainera, alkohol-kontsumoaren arazoak dituzten nerabeen familiak prestatzeko eta familia horiei trebetasunak emateko balio dutenak.</p>	<p>Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura.</p>	<p>Tokiko erakundeak</p>
<p>11. Ikastetxeetako curriculumean eta/edo proiektuetan babes-faktoreak —pertsonek trebetasunak eta gaitasunak, harremanetarakoak eta autokontrolkoak— sustatzea, baita substantzien erabilerari dagokionez taldearen arau-pertzepzioa eta okerreko usteak aldatzea ere.</p>	<p>Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura</p>	<p>Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza). Tokiko erakundeak</p>
<p>12. Osasun-alorrean nerabeei eta gazteei aholkuak emateko ekimenak definitzea, bateratzea eta sustatzea eskola-ingurunean (gazteen ikasgelan) eta osasun-eremuan (gazteen kontsulta) eta Osasun eskolan.</p>	<p>Osakidetza</p>	<p>Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura. Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)</p>
<p>13. Ikastetxeek alkoholarekin arazoak dituzten adingabeak atzematen dituzten kasuetarako, protokolo bat diseinatzea eta abian jartzea.</p>	<p>Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura</p>	<p>Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura. Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)</p>

14. Alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoaren prebentzioari buruz egiaztatutako edukiak sustatzea aisialdiko eta astialdiko monitoreen titulazioan.	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura.	
15. Ostalaritza Eskolek eskaintzen duten informazioan edari alkohol-dunen salmenta bikainari buruzko prestakuntza sartzea.	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza). Tokiko erakundeak
<b>8.3. ADIKZIOAK</b>		
16. Alkoholari eta adingabeei buruzko balibideak eta materialak ezagutzera ematea eta erabiltzea hezkuntza ez-formalaren eremuko langileen artean (esate baterako, aisialdiko eskolak).	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)
17. Osasun-sistemako eta hezkuntza-sistemako gizarte-zerbitzuen artean koordinatutako mekanismo bat ezartzea, alkohol-kontsumoaren ondorioz arrisku-egoeran dauden familietan esku hartzeko.	Osasuna (Arreta Soziosanitarioko arduraduna)	Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza. Osakidetza
18. Batzorde Gidatzailearen bilera bat antolatzea eta abian jartzea gutxienez urtean behin.	Osasuna	Lehendakaritza; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura; Enplegua eta Gizarte Politikak; Justizia eta Herri Administrazioa; Segurtasuna. Foru Aldundiak. EUDEL.
19. Alkoholari eta adingabeei buruzko sare bat sustatzea: gizarte-erakundeek, instituzioek, hezkuntza-eremuak eta hedabideek esperientziak eta ekintza-proposamenak trukatzeko.	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)	Lehendakaritza; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura. EUDEL.
20. Eusko Jaurlaritzaren webguneetan hedatzea alkoholaren eta adingabeen alorrean profesionalentzat eta jendearentzat orokorrean dauden balibideei edo kanpainei buruzko datuak eta informazioa.	Lehendakaritza	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)
21. Prospekzio soziologikoa.	Osasuna	
21.1. Adingabeek alkohola kontsumitzeari buruzko adierazleak multzo komun bat, genero-ikuspegia ere bilduko duena, egitea.	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)	

21.2. Adikzioei buruzko inkestei —Eusko Jaurlaritzak egiten edo babesten dituenei— (“Euskadi eta Drogak”, “Drogak eta Eskola” eta EAEOI) 18 urteik gorako biztanleriaren alkohol-kontsumoaren erabakitzaileak eta pertzepzioak gehitzea.	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)	Lehendakaritza; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura
22. Ostalaritzara bideratutako programa bat, praktika osasungarriak sustatzeko dena, garatzea eta hedatzea Ostalarien Elkarteen, Merkataritza Elkarteen eta Jai Batzordeen laguntzarekin.” Salmenta arduratsuari buruzko programa.	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)	Tokiko erakundeak
22.1. Alkohola saltzeko prestakuntza-material bat egitea (“Salmenta Arduratsua”).	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)	Tokiko erakundeak
<b>8.4. OSASUN ARRETA</b>		
23. Alkohola kontsumitzen duten adingabeak artatzeko irizpide homogeneoak ezartzea laguntza-eremu guztietatik	Osakidetza	
23.1. Kontratu-programa eta kudeaketa klinikoko kontratuak egokitzea.	Osakidetza, Osasuna	
23.2. Pazienteentzako eta laguntzan babesa ematen duten familientzako hedapen-materiala aztertzea eta egitea.	Osakidetza	
23.3. Alkohola bahetzea, bereziki adingabeen taldea bilduz.	Osakidetza	
23.4. Egoeraren azterketa eta baliabideen mapa.	Osakidetza, Osasuna	
24. Alkohola kontsumitzen duten nerabeei bideratutako arreta hobetzea.	Osakidetza (Osasun mentala), Lehen Mailako Arreta	
24.1. Tratamendua protokolizatzea eta laguntzari jarraipena ematea.	Osakidetza	
24.2. Alkoholari buruz telefono bidez osasun-gomendioa eman dadin sustatzea, baita alkohol-arazoak dituzten gazteen eta horien familia-ingurunearen jarraipena egitea eta tokiko erakundeen eta Osakidetza-ren arteko lankidetzaren erraztea ere.	Osakidetza	Tokiko erakundeak

24.3. Elkarrekiko erlazioa eta baterako lana sustatzea osasuneko aktiboen eta lurraldean, udalerrian eta/edo eskualdean dauden baliabideen artean.	Osakidetza	Tokiko erakundeak
24.4. Bateratze-lana eta esperientzien hedapena.	Osakidetza, Osasuna	
24.5. Prebentzioa osasun-zentroetatik sustatzea.	Osakidetza. Osasun Mentala. LM.	
24.6. LMko pediatra eta medikuntzako eta eremu horretako profesionalentzako prestakuntza, dituzten premien arabera.	Osakidetza	
25. Alkohol-kontsumoaren erregistro homogeneoko proposamena eta baterako kodifikazioa egitea Osakidetza eremu guztientzat, laguntza-maila guztietan.	Osakidetza	
<b>8.5. ARAU EREMUA</b>		
26. Arau-esparrua hobetzea	Osasuna	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Tokiko Erakundeak
26.1. Adingabeen alkoholaren kontsumo problematikoari ekitea Adikizioei buruzko lege-proiektuan. Adingabeen alkohol-kontsumoa eta bereziki adingabeak jaialdietan sartzea arautu dezala.  Nolanahi ere, puntu hau ondorengo 26.2 ekintzaren aurrekoa da. Ekintza hori gai honi buruzko ordenantza bat diseinatzeari buruzkoa da.	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)	
26.2. 18/98 Legea edo etorkizuneko Adikzioen Legea garatuko duten udal-araudiak sustatzea, eta, zehazki, ereduzko ordenantza bat diseinatzea, besteak beste, honako alderdi hauek arautuko dituenak: kontrola, kontsumoa, salmenta, zehapenaren ordezkotza jarduerak, ikuskatzeko eta zehatzeko eskumenen muga edo zehapen ekonomikotik eratorritako diru-bilketa programak finantzatzera bideratzen duena.	EUDEL	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)
26.3. Osasun Eskolari buruzko legea berrikustea, eta hala bada-gokio, eguneratzea.	Osasuna	Lehendakaritza; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

26.4. Adikzioei buruzko laguntzen aginduan balioespen-irizpidea sartzea, adingabeen alkohol-kontsumoaren prebentzioari lehentasuna	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)	
26.5. Graduazio altuko alkoholei aplikatu dakizkiekeen tasen igoera sustatzea.	Osasuna, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	
27. Araudiaren alorreko jakintza eta kontrola kudeatzea.	Osasuna, Segurtasuna	Tokiko erakundeak
27.1. Adingabeen kontsumoari dagokionez, edari alkoholdunen publizitatearen, sustapenaren eta babesleztaren alorrean indarrean dagoen araudiari buruzko jardunaldi tekniko bat (aldizka bilduko dena) antolatzea.	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)	Segurtasuna, EUDEL, tokiko erakundeak
28. Legea betetzen dela zaintzea, batez ere ikastetxeen ingurunean eta adingabeak biltzen diren eremuetan.	Segurtasuna	Tokiko erakundeak
29. Alkohola adingabeei saltzen dieten establezimenduak kontrolatzea.	Tokiko erakundeak	
30. EAEko polizien artean eta inplikaturako beste agente batzuekin (Larrialdi Zerbitzua eta Zerbitzu Sanitarioa) koordinaturako jarduna protokolizatzea, adingabeen alkohol-kontsumoarekin lotutako orori dagokionez.	Segurtasuna	Tokiko erakundeak eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza
<b>8.6. SENTSIBILIZAZIO ETA HEDAPEN KANPAINAK</b>		
31. Alkoholaren inguruan dagoen erregulazioari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-kanpaina diseinatzea eta abian jartzea. Kanpaina hori edari alkoholdunak saltzen dituzten establezimenduetan eta behin-behineko alkohol-banatzailaiei (txosnak, jaietan espazio publikoak esleitzen dituztenak) informazioa emateko da.	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)	Ekonomiaren Garapeneko eta Lehiakortasuneko Saila, Tokiko Erakundeak
32. Orokorrean gizartearentzat bideraturako informazio-kanpaina, alkohol-kontsumoarekin lotutako arriskuak eta kalteak prebenitzeari buruzkoa, adingabeek eta gazteek arrisku eta arazo horiek hobeto eza-gutu dituzaten.	Osasuna	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura (Gazteria)
33. Sentsibilizazio-ekintzak kirol- eta aisia-instalazioetan eta -zentroetan.	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura (Kirolak)	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza) eta Foru Aldundiak

34. Nerabeei bideratutako kanpainak eta komunikazio-estrategia	Osasuna	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura
34.1. Komunikazio-estrategiak gizarte-sareetan eta nerabeek nahiz gazteek normalean erabiltzen dituzten bitartekoetan. Profilak sortzea eta mantentzea bereziki nerabeei eta gazteei bideratutako informazio-edukiak dituzten gizarte-sareetan.	Osasuna	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura. (Gazteria), Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza
34.2. Sentsibilizazio-kanpaina alkohol-kontsumoa sahiesteko eta murrizteko, nerabeen partaidetzarekin.	Osasuna	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura. (Gazteria), Enplegua eta Gizarte Politika (Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza)
35. Sentsibilizazioa eta autokontrola komunikazioaren alorrean.	Osasuna	Hedabideak
35.1. Erakundeetako komunikazio-arduradunei bideratutako sentsibilizazio-ekintzak.	Osasuna	Hedabideak
35.2. Hedabideetako zuzendariei eta langileei bideratutako sentsibilizazio-ekintzak.	Osasuna	Hedabideak
35.3. Alkoholaren kontsumo arduratsuari buruz hedabide sozialetan emandako informazioa behar bezala tratatzeari buruzko gida egitea.	Osasuna	Hedabideak
35.4. Publizitateko autokontrol-neurrak bultzatzea nerabeak alkohola kontsumitzera eraman ez ditzan.	Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordea	Osasuna (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)



# ERANSKINAK

## 1. Eranskina. Parte-hartzaileak eta erabilitako prozesu metodologikoa

Jaurlaritzaren Kontseiluak erabaki zuen esku hartzeko estrategia bat diseinatzea eta abian jartzea, adingabeek egiten duten alkoholaren gehiegizko kontsumoa lantzeko.

2013ko ekainaren 17an, erakunde arteko batzorde bat elkartu zen, Donostian. Batzorde hori honako erakunde eta pertsona hauek osatzen zuten:

Hezkuntza Saila	Begoña Garamendi	Berrikuntzako zuzendaria
Enplegu eta Gizarte Gaie-tako Saila	José Luis Madrazo	Familia Politikarako eta Komunitate Garapeneko zuzendaria
Segurtasun Saila	Rodrigo Gartzía	Segurtasuna Koordinatzeko zuzendaria
Bilboko Udala	Mariano Gómez	Osasun eta Kontsumo Saileko zinegotzi ordezkaria EUDELen izenean ere bertaratu zen.
Donostiako Udala	Edorta Azpiazu	Prebentzioaren, Haurren eta Familiaren Zerbitzuaren burua
Gasteizko Udala	Joseba Zabala	Gasteizko udaleko teknikariak
	Paco Gómez	Gasteizko udaleko teknikariak
Osasun Saila	Guillermo Viñegra	Osasuneko sailburuordea
		Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria

50

Adingabeek alkohola gehiegi kontsumitzearen gaia aztertzeko egin zen bilera, adostasunak lortzeko eta biztanleria osoaren osasunari baina baita oso bereziki nerabeen osasunari ere mesede egingo dioten kultura eta ohiturak hedatzea ahalbidetuko duten ekintzei ekiteko.

Bertaratu guztiek adierazi zuten prest zeudela proposatutako ekimenean parte hartzeko eta laguntzeko, alkohola kontsumitzen hasten diren adingabeen kopurua murrizteko, alkohola kontsumitzen hasteko adina atzeratzeko, kontsumitzeko “presioak” murrizteko eta alkoholaz abusatzeak dituen arriskuei buruz nerabeek duten jakintza hobetzeko.

Horretarako, 3 lantalde eratzea erabaki zen:

- Hezkuntza eta Kultura Saila, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, eta Osasun Saila.
- 3 hiriburuetako udalak, EUDEL, Justizia eta Herri Administrazio Saila, Segurtasun Saila eta Osasun Saila.
- Osakidetza eta Osasun Saila.

Horrez gain, erabaki zen lan-arlo bat sustatzea Hedabideekin, informazio- eta prestakuntza-ekintzak sustatzeko hainbat eremutako buruzagi sozial eta profesionalen laguntzarekin.

Uztailaren 9an, hiru lantaldeen baterako lehen topaketa egin zen, aurkezpen orokorra egiteko, baina aurrerantzean foroetako bakoitzak bere saioak eta bere lan-agenda programatu zuen.

### **I. taldea – Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila; Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila; eta Osasun Saila; Udalak**

Hezkuntza Saila	Eduardo Pérez Rodriguez	Hezkuntza Berriztatze teknikaria
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila	Eva García Solana	Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako teknikaria
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	Agurtzane Iriondo Goti	Kirol eta Gazteria Zuzendaritzako teknikaria
Bilboko Udala	Beatriz Basterretxea	Droga-mendekotasunen prebentzio komunitarioko teknikaria
Gasteizko Udala	Francisco Gómez	Ingurumenaren eta espazio publikoaren Sailaren Osasun Publikoaren Zerbitzuko burua
Osasun Saila	Julen Argintxona	Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren Adikzioetako teknikaria
	Isabel Ramos	Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren Adikzioetako teknikaria

Lantaldeak hiru bilera egin ditu eratu zenetik (gutxi gorabehera bilera bat hilean).

Lan-metodologia honako hau izan da: bilera bakoitzean taldea osatu duten pertsonen ekarpenak bildu dira lan-dokumentu batean, eta dokumentu hori berriz bidali zaie testuaren gainean iradokizunak, aldaketak, zuzenketak egiteko eta egokitzat hartzen zutena adierazteko. Fase horren ostean, beste bilera baterako deitu jaso zuten, lan-dokumentua gehiago hobetzeko eta berriz ekin zitzaion prozesuari; hiru aldiz errepikatu zen ekintza hori. Lan horren ondorioz, azken dokumentu bat egin da. Dokumentu horretan taldeak egindako ekarpen eta lortutako adostasun guztiak biltzen dira.

## II. taldea – Bilboko, Donostiako eta Gasteizko, Eudeleko, Segurtasun Saileko eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzako lantalde teknikoak

Bilboko Udala	Gonzalo Macgragh	Droga-mendetasunen bulegoko burua
Donostiako Udala	Edorta Aspiazu	Prebentzioaren, Haurren eta Familiaren Zerbitzuaren burua
	Ander Gómez	Udaltzaingoa
Gasteizko Udala	Francisco Gómez	Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Sailaren Osasun Publikoaren Zerbitzuko burua
	Jesús Carretero	Hiritarren Segurtasun Sailaren komisariordea
	Joseba Zabala	Hiritarren Segurtasun Sailaren droga-mendetasunen alorreko teknikaria
Eudel	Dorleta Goiburu	Eudelen teknikaria
Justizia eta Herri Administrazioiko Saila	Patxi López Cabello	Gazte-justiziako zerbitzuaren arduraduna
Lehendakaritza	Mikel Burzako	Koordinazioko zuzendaria
Segurtasun-saila	Txema Gaona	
Osasun Saila	Irene Urbitarte	Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren Adikzioetako teknikaria
	Ana Pertika	Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren Adikzioetako teknikaria

2013ko uztailaren 9an, hiru lantaldeek elkarrekin egin zuten bileraren ondoren, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak proposamen bat egin zuen. Proposamen horretan lantaldeak jarraitu behar zituen helburuak azaltzen ziren. Aipatutako helburuak honako hauek ziren:

- Helburu orokorra dokumentu bat egitea zen, adingabeek komunitate-eremuan, bereziki aisiaguneetan eta jaietako guneetan alkohola kontsumitzearen fenomeno modu adostuan lantzea helburu duen esku-hartzea jasoko zuena.
- Hauek dira helburu espezifikoak:

- Udal-araudiak bateratzea.
- Alkoholari eta adingabeei komunitatean aurre egiteari dagokionez, udalen ikuspegi desberdinak partekatzea.
- EAEko poliziek (Udaltzaingoa eta Ertzaintza) adingabeen alkohol-kontsumoari dagokionez dituzten jardun-protokoloak ezagutzera.
- Larrialdi-egoerak gidatzeari dagokionez.
- Ingurune jakin batzuk zaintzeari eta ingurune jakin horietan duten presentziari dagokionez.
- Egon daitezkeen prestakuntza-premiak atzematea.
- Ekintza jakin batzuk proposatzea, adingabeek jaietako eremuetan eta aisiaguneetan egiten duten alkohol-kontsumoaren fenomenoari aurre egiteko komunitatearen edozein esku-hartzeren abiapuntu izan daitezkeenak.

53

Lantaldeak bilera bat egin du, eta, ondoren, posta elektronikoko bidez lan egin da. Bilera hartan lantaldearen helburuak ezartzeko ahaleginak egin ziren; helburuak adostu ondoren eta dauden araudiak ezagutzeko eta alkoholaren eta adingabeen komunitateari aurre egiteari buruz dauden udal-ikuspegiak partekatzeko, gai horri buruzko informazioa eskatu zitzaizen EAEko udalerrri guztiei. Era berean, Segurtasun Sailari eta Gasteizko, Donostiako eta Bilboko udaltzaingoei eskatu zitzaizen alkohol-kontsumoen eta adingabeen aurrean dituzten jardun-protokoloak buruzko informazioa bidal dezatela.

10 udalerritako, Segurtasun Saileko eta Gasteizko eta Donostiako udaltzaingoetako informazioa jaso zen, eta, gainera, interesgarritzat hartu ziren beste ordenantza batzuk aztertu ziren.

Dokumentazio hori guztia aztertu ondoren, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak lehenengo proposamen-dokumentua egin zuen, eta lantaldeko kide guztiei igorri zitzaizen azter zezaten eta beren ekarpenak egin zitzaizen. Taldeko kideek egingadako ekarpenak hasierako dokumentuari gehitu ondoren, helburuen eta akzioen azken dokumentazioa onartu da.

### III. taldea – Osakidetza eta Osasun Saila

Ospitale-sarea	Santiago Mintegi	Guruzetako Larrialdietako pediatria. Pediatria Larrialdien Espainiako Elkartearen Behatoki Tokikologikoaren koordinatzailea
	Ana González-Pinto	Arabako Unibertsitate Ospitalearen Haur eta Gazteentzako psikiatra (Santiago)
Osasun Mentaleko sarea	Aurora Herrera	Gasteizko AOM-AOTZ zentroko Haur eta Gazteentzako Unitateko erizana
	Juan Antonio Abeijón	Julián de Ajuriaguerra Osasun Mentaleko Zentroko psikiatra eta burua
Lehen Mailako Arreta	Pedro Gorrotxategi	Pasai San Pedroko (Gipuzkoa) psikiatra
	Elena Uria	Ezkerraldeko Lehen Mailako Arretako (LA) erizaina
Larrialdiak	Isidro Medina Sánchez	Larrialdietako erizaintzako zuzendaria
	Pilar Vázquez	
Osakidetzako zerbitzu orokorrak	M. Luz Peña	Asistentzia Sanitarioko Zuzendariordea
Osasun Saila	Jon Zuazagoitia	Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariordea
	Tomás Plazaola	Tolosaldeko osasun publikoaren koordinatzailea
	Nerea Antia	Aholkularia

Lantaldeak 3 bilera egin ditu eta posta elektronikoko bidez lan egin du.

Lantaldearen lehenengo bileran abiapuntua aztertu zuten (adingabe kontsumitzaileei lehen mailako arretari, ospitaleko arretari, osasun mentaleko arretari, arreta soziosanitarioari eta larrialdietan ematen zaien arretari buruzko datuak eta gaur egungo egoera) eta hainbat ondorio atera zituzten adingabeen alkohol-kontsumoari modu integrarean osasun-sare publikotik ekiteko. Prebentzioaren, diagnostikoaren, tratamenduaren eta errehabilitazioaren aldetik hainbat helburu ezarri ziren, eta eremu bakoitzean, epe laburrean, ertainean eta luzean, esku hartzeko eta jarduteko estrategia eta proposamen jakin batzuk definitu ziren.

Bigarren bileran, parte-hartzaileek egindako proposamenak aurkeztu, aztertu eta ordenatu ziren. Azkenik, hirugarren bileran, osasun-eremura bideratutako proposamenak eta gomendioak biltzen zituen azken dokumentua onartu zen; horrez gain, arduradunak, parte-hartzaileak eta epeak zehaztu zituzten ahal izan zen neurrian.

## 2. Eranskina. Lantaldeen proposamenak eta gomendioak

Lantaldeek hainbat gomendio eta proposamen zehatz aurkeztu dituzte, eta jardun-eremuen arabera antolatu dira:

- Komunitate- eta erakunde-eremua
- Hezkuntza
- Kontsumoaren prebentzioa eta osasunaren sustapena.
- Osasun-arreta hobetzea
- Arau-eremua
- Informazioa, komunikazioa eta hedapena
- Prestakuntza eta ikerketa

### 1. Komunitate- eta erakunde-eremua

1. Droga-mendetasunen lantalde teknikoaren egitura eta adikzioen komunitate-prebentzioko programak sustatzea, eta, zehazki:

- Laguntzei buruzko Aginduan, adikzioen komunitate-prebentzioaren kapitulu- luan, bideratzen den aurrekontu-zuzkidura areagotzea.
- Lantalde teknikoari bideratutako diru-laguntzak arautzen dituen araudian balioespen-irizpidea —adingabeen alkohol-kontsumoaren prebentziari lehen- tasuna emango diona— sartzea.
- Gurasoei bideratutako programak -Guraso Eskolak- sustatzea, hainbat gai sar- tuz, hala nola alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoa.
- Hezkuntza-sistemak, osasun-sistemak eta gizarte-zerbitzuek koordinatuta lan egitea arrisku-egoeran dauden familietan jardun ahal izateko.

2. Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzak koordinatzea, alde batetik, ekintza horien ezarpena eta, bestetik, baliabideak nahiz materialak hezkuntza ez- formalaren eremuko (adibidez, astialdiko eskolak) langileen artean banatzea.

3. “Hurbiltasun-programak” deiturikoak sustatzea, batez ere gazteentzat diseina- tutako aisiaguneetan.

4. Lonjetan arriskuak murrizteko esku-hartze espezifiko diseinatzea.

- Lonjetan esku hartzeko EAEko hainbat herritan abian jarritako esku-hartze eredu desberdinak biltzea.
- Eredu gisa erabiliko den esku-hartzea adostea.
- Esku-hartze horren euskarri izango den materiala egitea
- Aisia-eskaintzak eguneko jardueretan dibertsifikatzea, aisia- eta olgeta-aukerak sustatuz, esate baterako lehiakoa ez den ariketa fisikoa egitea eta bizi-aztura osasungarriak. Horretarako, eguneko aisiako komunitate-baliabideak erabiltzea, baliabide horiek eskuratzea ahalbidetuz eta merkatuz.

5. Gazte asko elkartzen diren ekitaldietan arriskuak murrizteko esku-hartze espezifiko bat diseinatzea.

6. Euskararen aldeko jaialdiak eta jende asko elkartzen den ekitaldiak antolatzen dituzten erakundeekin lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzea, alkohol-kontsumoak dakartzan arriskuei buruzko arduraren har dezaten gazteek. Euskal Eskola Publikoaren eguna, Araba Euskaraz, Kilometroak, Ibilaldia, Nafarroa oinez, Herri Urrats, Korrikaren amaiera, . . . eta abar.
  - EAEko hainbat herritan abian jarritako esku-hartze eredu desberdinak biltzea. Esate baterako, Tolosako Kilometroak 2013.
  - Eredu gisa erabiliko den esku-hartzea adostea.
  - Esku-hartze horren euskarri izango den materiala egitea..
7. EAEko polizien esku-hartzeak modu eraginkorren koordinatzea, baita honako gai hauetan inplikaturik dauden beste agente batzuen (Larrialdi eta Osasun Zerbitzuak) esku-hartzeak ere:
  - Adingabeek edari alkoholduak kontsumitzea edo edukitzea bide publikoan.
  - Adingabeei alkohola saltzea eta ematea.
  - Larrialdi-egoerak (koma etilikoak).
  - Jende asko biltzen den ekitaldiak.
8. Jarduteko oinarritzko protokolo bat egitea, poliziak gai honetan koordinatzea ahalbidetuko duen protokoloa, hain zuzen ere.
9. Ostalaritzara bideratutako “Salmenta bikaina” programa garatzea eta ezartzea.

56

## 2. Hezkuntza

1. Batez ere alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoa lantzen duten eta gurasoei bideratuta dauden programak -Guraso Eskolak- sustatzen laguntzea.
2. Hezkuntza-sistemaren, osasun-sistemaren eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa ahalbidetzea arrisku-egoeran dauden familietan jardun ahal izateko.
3. Euskararen aldeko jaiak (esate baterako, Euskal Eskola Publikoaren eguna, Araba Euskaraz, Kilometroak, Ibilaldia) antolatzen dituzten erakundeekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenean parte hartzea, adingabeek alkohola kontsumitzeak dituen arriskuei buruzko sentsibilizazioa eta prebentzioa sustatzeko.
4. Ikasleei eta hezkuntza-komunitateari bideratutako alkohol-kontsumoaren prebentzio unibertsaleko programa bat garatzen eta ezartzen parte hartzea.
5. Ikastetxeetako curriculumean eta/edo proiektuetan babes-faktoreak —pertsonen trebetasunak eta gaitasunak, harremanetarakoak eta autokontrolkoak— sustatzea, baita substantzien erabilerari dagokionez taldearen arau-pertzepzioa eta okerreko usteak aldatzea ere.
6. Eskola-ingurunean osasunaren alorrean adingabeei eta gazteei aholkuak ematen laguntzea eta aholkularitza hori bultzatzea.

### 3. Kontsumoaren prebentzioa eta osasuna sustatzea

1. Titulartasun publikoko baliabide didaktikoak —irakasleei, familiei eta ikasleei bideratuta daudenak— sortzea ikasleen alkohol-kontsumoa prebenitzeko. Prebentzio unibertsaleko eta selektiboko programak aztertzea eta diseinatzea eskola-eremuan.
  - Lantalde bat eratzea beharrezkotzat hartzen diren materialak egiteko. Material horiek Hezkuntza Sailak, Berritzeguneek eta tokiko lantalde teknikoek baliozkotzat jo beharko dituzte.
  - Alkohol-kontsumoaren prebentzio unibertsaleko “online” programa bat egitea hezkuntza-eremuan ezartzeko.
2. Alkoholaren kontsumoa prebenitzeko eta murrizteko jaietako eta aisialdiko eremuetara ez ezik jende asko biltzen den jai-giroko ekitaldietara ere bideratuta dauden programak garatzea; era berean, irakasleei, familiei eta ikasleei bideratutako titulartasun publikoko baliabide didaktikoak garatzea, ikasleen alkohol-kontsumoa prebenitzeko.
3. Adikzioen Planean aurreikusitako prebentzio unibertsalaren, selektiboaren eta adieraziaren programak mantentzea eta indartzea, estrategia honetako proposamenen arabera berrikusiz eta eguneratuz.
  - Programa horien azterketa eta balioespena biltzea Adikzioen Planaren urteko ebaluazioan.
4. Behar izanez gero, genero-ikuspegia sartzeko alkohol-kontsumoa prebenitzeko programetan. Halaber, aztertzea osasunerako hezkuntza-programetan sar ote daitezkeen generoen arteko harreman-gaitasunak.
5. GKEek edo beste mota bateko erakunde pribatuek gai horren inguruan egiten dituzten programak sustatzea. Eta, zehazki:
  - Espezifikoki edo batez ere gazteen alkohol-kontsumoa prebenitzera bideratutako programak osorik edo zati batean finantzatuko direla bermatzea.
  - Laguntzei buruzko Aginduaren arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko kapituluan bideratzen den aurrekontu-zuzkidura areagotzea.
  - Diru-laguntzak arautzen dituen araudian balioespen-irizpidea —adingabeen alkohol-kontsumoaren prebentzioari lehentasuna emango diona— sartzeko.
6. Osasun-alorrean nerabeei eta gazteei aholkuak emateko ekimenak definitzea, bateratzea eta sustatzea eskola-ingurunean eta osasun-eremuan.
  - Esperientziak jasotzea, hala nola Gazte Kontsulta eta Gazte Gela, eta esperientzia horiek Euskadi osoan ezar ote daitezkeen aztertzea.



## 4. Osasun-laguntza

1. Alkohola kontsumitzen duten adingabeak artatzeko irizpide homogeenok ezartzea laguntza-eremu guztietatik

- Kontratu-programa eta kudeaketa klinikoko kontratuak egokitzea
- Pazienteentzako eta laguntzan babesa ematen duten familientzako hedapen-materiala aztertzea eta egitea.
- Tabakoaren eta alkoholaren lehentasunezko eskaintza bahetzea, 12-15 urte artean.
- Komenigarria da alkoholaren bahetzea egitea adin-tarte guztietarako
- Egoeraren azterketa eta baliabideen mapa
- Inplikaturako arloetako adituen taldea sortzea.

2. Alkohola kontsumitzen duten nerabeei bideratutako arretarekin jarraitzeko, arreta horri laguntzeko eta hura hobetzeko prozedura bat egitea laguntza-eremu guztietatik

- Inplikaturako arloetako adituen taldea sortzea prozedura-dokumentua egiteko.
- O-sarean proiektuarekin koordinatzea, alkoholaren inguruan telefono bidezko osasun-kontseilua jasotzea eta alkohol-arazoak dituzten gazteen kasuen eta horien familia-ingurunearen jarraipena egin dadin sustatzeko

3. Alkohola kontsumitzen duten gazteen aurrean, sektore arteko eta erakunde arteko lankidetzak eta koordinazio-prozedura egitea

- Osasuneko aktiboak eta lurraldean, udalerrian eta/edo eskualdean dauden baliabideak identifikatzea eta haiek harremanetan jartzea.
- Bateratze-lana eta esperientzien hedapena.

4. Alkohol-kontsumoaren erregistro homogeenoko proposamena eta baterako kodifikazioa egitea Osakidetzako eremu guztientzat

- Diziplina anitzeko talde bat sortzea erregistro homogeenoko eta kodifikazio bateratuko proposamena egiteko.

## 5. Arau-esparrua

1. 18/98 Legea edo Adikzioei buruzko etorkizuneko Legea garatuko duten udal-ordenantzak bultzatzea. Eta, zehazki, ereduzko ordenantza bat diseinatzea, tokiko erakundeek beren gain hartu ahal izango dutena eta gutxienez honako alderdi hauek arautuko dituen:

- Adingabeek edari alkoholodunak kontsumitzea bide publikoan.
- Kontrol-neurri bereziak hartzea merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduetan adingabeei edari alkoholodunak saltzea saihesteko.
- Edari alkoholodunak saltzea debekatuta duten establezimenduak mugatzea, establezimendu horiek batez ere 18 urtetik beherakoentzat bideratuta daudelako.
- Alkohola bide publikoan saltzea eta kontsumitzea herrietako jaiegunetan, herri-ospakizunetan edo jende asko biltzen den ekitaldietan.
- Legea betetzen ez dutenek ordezkari jarduerak (prestakuntzaren arlokoak edo komunitatearen mesederako direnak), isunen ordezkari jarduerak, egiteko aukerarik ote dagoen aztertzea.
- Ikuskaritza- eta zehapen-eskumenak mugatzea.
- Ordenantzan bildutako aginduak hausteagatik ezarritako zehapen ekonomikoak prebentzioko udal-programak finantzatzera bideratuko direla jasotzea.

2. 18/98 Legea betetzen ote den kontrolatzea:

- Publizitatea, sustapena eta babesletza:
  - Edari alkoholodunen publizitateak, sustapenak eta babesletzak adingabeen kontsumoan dituen ondorioei buruzko jardunaldi teknikoak antolatzea, honako hauei bideratuta egongo dena: Gazteria eta Kirolak Zuzendaritza eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila, Tokiko Erakundeak (Prebentzioko teknikariak, Udaltzaingoak) eta Foru Aldundiak.
  - Gai horren inguruko araudia benetan bete dadin lortzea.
- Adingabeei edari alkoholodunak ematea eta saltzea:
  - Edari alkoholodunak saltzen dituzten establezimenduei eta behin-behineko alkohol-banatzaleei (txosnak, jaietan espazio publikoak esleitzen dituztenak) dagoen erregulazioari buruzko informazioa ematera bideratutako kanpaina diseinatzea eta abian jartzea.
  - Udaltzaingoei eta Ertzaintzari kanpaina horren berri ematea

3. Eskola Osasunari buruzko Legea berrikustea eta eguneratzea, estrategia honetan jasotako esku-hartzei araudi-esparrua emateko.

## 6. Informazioa, komunikazioa eta hedapena

1. Jendearentzat orokorrean eta adingabeen kolektiboarentzat bereziki bideratutako kontzientziazio- eta sentsibilizazio-jarduerak sustatzea, adingabeek alkohola kontsumitzeak duen eragin handiari buruzkoak.
  - Kontzientziazio- eta sentsibilizazio-mezuak sartzea agerraldi publikoetan eta komunikazio-ekintzetan
2. Alkohol-kontsumoarekin lotutako arriskuak eta kalteak prebenitzeari buruzko hedapen- eta informazio-jarduerak sustatzea, gazteek arrisku eta arazo horiek hobeto ezagutu ditzaten. Eta, zehazki:
  - Adingabeei eta alkoholari buruzko informazio-kanpaina.
  - Sentsibilizazio-kanpaina adingabeen artean: Alkohol Barik.
3. Informatzeko eta prestatzeko teknologia eta metodologia aktiboak aplikatzea.
  - Lehendik dauden baliabideak hedatzea.
  - Alkoholari buruzko web-orria diseinatzea profesionalentzat eta jendearentzat orokorrean. Web-orri horretan lehendik dauden baliabideei buruzko informazioa lortu ahal izango da. <http://www.msssi.gob.es/alkoholJovenes/campaInstitucionales/home.htm>
  - Komunikazio-estrategiak ezartzea gizarte-sareetan eta nerabeek nahiz gazteek normalean erabiltzen dituzten bitartekoetan. Profilak sortzea eta mantentzea bereziki nerabeei eta gazteei bideratutako informazio-edukiak dituzten gizarte-sareetan.
  - Alkoholari buruzko edukiak —kolektibo horri eta horien familiei bideratutakoak— ezartzea eta aldatzea Eusko Jaurlaritzaren web-orrietan
4. Gizarte-hedabideak inplikatzeko. Eta, horretarako:
  - Hedabideekin lan egitea gazteei buruzko berri positiboak argitara daitezen sustatzeko, gazteen estigmatizazioa saihesteko.
  - Hedabideentzat bideratutako jardunaldi bat antolatzea Kirol eta Gazteria Zuzendaritzarekin koordinazioan.
  - Alkoholaren kontsumo arduratsuari buruz gizarte-hedabideetan emandako informazioa behar bezala tratatzeari buruzko gida egitea.
5. Autokontrol-neurriak sustatzea honako hau saihesteko: publizitatearen bitartez, adingabeek alkohol-kontsumora bultzatzea, alkohol-kontsumoa ondo pasatzearekin, arrakastarekin eta/edo beste ezaugarri positibo batzuekin lotzea edo abstinentziaren edo edanda ez egotearen irudi negatiboa ematea.

## 7. Prestakuntza eta ikerketa

1. Hainbat eremutako profesionalen prestakuntza-premiak atzematea, eta beharrezkoak diren prestakuntza-planak diseinatzea. Zehazki, honako hau gomendatzen da:
  - Udal-teknikariak eta poliziek (tokikoa eta autonomia-erkidegokoa) osatuko duten lantalde bat sortzea, egon litezkeen prestakuntza-premiak atzemateko.
  - Atzemandako premiekin bat datorren prestakuntza-plan bat diseinatzea Euskal Autonomia Erkidegoko polizientzat.
  - Baterako prestakuntza-material bat egitea polizia-kidegoetarako.
2. Ostalaritzako profesionali bideratutako prestakuntza espezifikoak.
  - Ostalaritza Eskolek eskaintzen duten informazioan edari alkoholodunen salmenta bikainari buruzko modulu espezifikoak sartzea.
3. Jardunaldi teknikoak bat antolatzea adingabeek bide publikoan edari alkoholodunak kontsumitzeari edo edukitzeari, alkohola adingabeek saltzeari eta emateari, larrialdi-egoerari (koma etilikoak) eta jende asko biltzen den ekitaldiei buruz EAEko poliziek eta inplikaturako beste agente batzuek (Larrialdi Zerbitzua eta Osasun Zerbitzua) dituzten protokolo desberdinak bateratzeko. Jardunaldi horretatik ateratzen diren ondorioetatik jarduteko oinarrizko protokolo bat egingo da.
4. “Salmenta bikainari” buruzko programa.
  - Baterako prestakuntza-material bat egitea alkohola saltzeko (“Salmenta bikaina”). Ostalarien Elkarteekin, Merkatarien Elkarteekin, Jai Batzordeekin eta abarrek lankidetzan jardutea.
5. Alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoaren prebentzioari buruz egiaztatutako edukiak sustatzea aisialdiko eta astialdiko monitoreen titulazioan.
6. Osasun-eremuan, profesionalak prestatzea alkohola kontsumitzen duten adingabeengana eta horien familiengana hurbiltzeko
  - Online prestakuntza.
  - Hedapen-jardunaldiak.
  - Nerabeei eta horien familiei elkarriketak egiteko eta/edo haiengana hurbiltzeko metodologia ezartzea eta/edo bateratzea.
7. Gazteentzat, gurasoentzat eta osasuneko nahiz hezkuntzako profesionalentzat bideratutako prestakuntza- eta informazio-ekimenak garatzea Osasun Eskola bidez.
8. Alkoholaren kontsumoarekin lotutako faktoreen ikerketa sustatzea:
  - Kontsumitzen hastea errazten duten eta substantzien kontsumoari uztea eragotzen duten faktoreen azterketa.
  - Alkoholaren kontsumoarekin lotutako faktoreak ikertzea, eta faktore horien artean, alkoholaren eta beste substantzia batzuen gehiegizko kontsumoaren artean dagoen lotura.
  - Gai hau lehenetsutako helburu gisa sartzea ikerketarako laguntzen deialdietan.

